

PEÑAFLORIDA KONDEAREN
II. MENDEURRENA

Donostia, 1985-XII-20

PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN II. MENDEURRENEAN

Donostian, 1985-XII-20

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

X. Aizarna jauna.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Jaunak.

Euskaltzainkideak.

Jaun Andreak:

Hasteko, ohar bat egin beharrean naiz. Peñaflorida Kontearen bigarren mendeurrenako ospakizunen amaiera, duela egun guti, hemen Donostian egin da. Batek baino gehiagok egingo du galdera: zertara dator ospaketa berri hau? Lo egon al da orain arte Euskaltzaindia? Zergatik ez du egin lehenago bere oroitzapena?

Ez, ez da lo egon. Euskaltzaindiak aspaldidanik zuen asmoa urte honen barnean batzarre ireki bat jaun honen omenez egiteko. Insausti jauregia eskaini ziguten horretarako; baina han etxe-berriztapenak egiteko ziren. Hori dela eta, Urrirako jarri zen ospaketa hori, ustez eta ordurako berriztapenok eginik egongo zirela. Heldu zen Urria, eta obrak bukatu gabe zeuden. Orduan pentsatu zen, gure hileroko batzarrea baliatuz, Azarokoan hemen Donostian ospaketa hori egitea. Baina orduan ere ez zen posible gertatu, egun horretan Herri Adiskideen Elkartekoek beste zerbait Bilbon zutelako. Hara zergatik Abenduko batzar egunean egitea beste biderik ez zaigun gelditu.

Xabier M.^a Munibe jauna hil zeneko bigarren mendeurrena ospatzen ari gara (1785-1985). Mendeurren hori dela eta, urtean zehar ospaketak eta aipamenak egin izan dira han eta hemen jaun argi honen bizia eta obra gogoratuz. Eta ez arrazoi gabe, zeren berak sortu baitzuen Euskalerriaren Adiskideen Erret Elkartea, eta segur aski hau da gure herriak ezagutu duen kultur saileko ekintzarik ospetsuena.

XVIII. mendea maiz-sarri bidegabeki epaitua ikusten dugu; kasik belztua. Haatik, anitz ekintza zoriontsu eta emankor orduan sortzen dira.

Eta horien artean, hain zuzen, Herriaren Adiskideen Erret Elkarte. Beste kontu bat da hurrengo mendeko nahasmenduengatik obra honek espero zitekeen bezain beste on ekarri ez bazuen.

Zalduntxo haiek Euskalerrria jakin-bidean eta kultur-bidean sar arazi nahi zuten. Eta horretan ez zeuden, ez, oker. Luzarora begiraturaz, euskarak berak ere, salbatu nahi baldin bazuen beste biderik, ez zuen izango, hots, landu eta kultur tresna bihurtu beste biderik ez zuen izango. Horretan begi ernea izan zutela, aitortu behar.

XIX eta XX. mendeko nahasmenduek ez dute gehiegi lagundu; baina, hala ere, pixkaka, estrepozuka, eror eta jaiki, eta atzera-aurrera askorekin, zerbait egingo da hizkuntza hau barnetik indartzeko. Eta zuzen eta bidezko da hazia erein zutenei gure ezagutza egitea.

* * *

Munibe jauna kultur sail honetan zerbait egin nahiz zebiltzanen Mezenas edo laguntzaile ere izan zen, gainera. Aspaldi *Boletín de Amigos del País*-en agertu nuen albiste batetik (1) ageri da nola lagundu zien bedere Aita Ubillos-i, Juan Antonio Mogel-i eta Vicenta Mogel-i. Arantzazura ere uste dut maiz joaten zela hango kantari taldea pizkortzera (2).

Herri Adiskideen Elkarte honek, beste asmoen artean, euskara lan-tzearena ere izan zuen, eta hala ditugu, agerbidetzat, *Gavon Sariac*, *Borracho Burlado* eta Azpitarteren hiztegia.

Euskaltzaindiak, berari dagokionez, Peñafloredaren 2. mendeurrena ospatzean, euskal alderdi hau nahi du batez ere kontutan hartu eta aztertu.

Eta ba ote dago esan beharrik? Euskalerrriaren Adiskideen Erret Elkarteak eta Euskaltzaindiak har-emanik onenak izan dituzte beti elkarrekin. Gogora dezagun, diodanaren agergarritzat, bi erakundeok elkar harturik Azkoitiko Insausti jauregian 1974. urtean egindako batzarrea (3). 1983an, berriz, Pierre Lafitte eta Jean Haritschelhar euskaltzainak Euskalerrriaren Adiskideen Erret Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zituen Insausti jauregi horretan berean (4). Eta zilegi izan bekit ene izena ere

(1) Ikus "Juan Antonio de Moguel, estudiante en el Colegio de Jesuitas de Calatayud", BAP (1962), 325-327.

(2) Ikus JON BAGUES in *II Musikaldia* (Diciembre 85), Donostia. *Centenarios de Bach, Händel, Scarlatti y Conde de Peñafloreda*. ID. *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aranzazu*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1979; p. 18.

(3) Ikus "Euskaltzaindiak eta herri-Adiskideek elkarrekin egindako batzarrean euskaltzainburuaren agurra", *Euskera* (1975), 273-277.

(4) "P. Lafitte eta J. Haritschelhar Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartearen ohorezko bazkide izendatuak", *Euskera* (1984), 413-415.

hemen esatea: *Eliza* liburuaren aurkeztapena dela eta, nik ere izendapen berbera hartu bainuen hemen Donostian joan den urtean Iñaki Barriola jaunaren eskutik. Eskerrak ematea dagokit, eta halaxe egiten dut, pozik gainera, une honetan, Elkarteko honen sortzailearen oroitzapena gogoratzeko dugun une honetan.

* * *

Gaurko ospaketa hau, bere xumean, maitasunik eta ardurarik handienaz prestatu duela Euskaltzaindiak esan nahi dut. Gure asmoa —ez dakit atrebentzia edo burujopea esan—, ekarpen berri batzuk, ttipiak edo handiak, Peñaflorida jaunaren bizitze eta obrari buruz eskaintzea izan da. Ez dakit asmo hori zer neurritan burutu ahal izango dugun. Entzuleak esango du.

Ene ondoren mintzatuko da Iñaki Barriola jauna, Herri Adiskideen Elkarteko Lehendakari-ordea Gipuzkoan eta denbora berean euskaltzain urgazle dena. Azken hitzak, berriz, Gipuzkoan Herri Adiskideen lehendakari den Joan Inazio Uria jaunak egingo ditu. Eta bitartean, Altzibar, Juaristi, San Martin eta Arana-Martija jaunaren azterketa-lan edo txostenak irakurriko dira; berotetan Peñaflorida jaunaren bizitze eta obrak zer-ikusi duten alderdi desberdin eta askotarikoak ukitzen direlarik.

Izango ahal da dena hark ereindako haziak orain ere indarberriturik fruitu eman dezan! Halabiz.

PEÑAFLORIDAREN ZENBAIT ASMO

Donostia, 1985-XII-20

Iñaki Barriola

Euskalerrriaren Adiskideen Artezkari nintzela eta Euskaltzaindiko Buru den Aita Villasanteri Elkarte hartan sarrera agurra egiteko poztasuna izan nuenean, gure sortzaile izan zan Xabier Maria de Muniberen ome-
nez Euskaltzaindiak hileroko bileraren bat berari eskeintzea zer atsegin litzaigukeen ager arazi nion.

Villasanteren asmoetan halako zerbait egitea zegolarik, baiezkoa eman zigun berehala. Horra nola gaur, asmo hura betetzekotan alkarrekin gauden.

Zergatik, ordea Euskaltzaindiak Muniberi oroipen hau eskeini? Bere garaiko euskal idazle ezagunen artean ez egon arren, euskeraren alde egin zitueneri esker. Asko ala gutxi, ez nuke esango, baina denbora haietako, bere mailako jauntxoek egin zutenaren ondoan nahiko behintzat, gaur entzungo duzue.

Asko esan diteke eta, urte honetan zehar, esan da Peñaflorida Konteaz. Ez gutxiago asmoez baina denak edo gehienak aipatu beharra luzeegi bait litzateke, hiru-lau bat ikutuko ditut; ez garrantzitsuenak, oraingo egokiak derizkiotenak baizik.

Gipuzkoaren alde lehendabizi, Euskalerrriaren alde gero, mugitu ziotenak argi eta garbi ageri dira bere Adiskideaz sortu zuen Elkartearen Araudian: euskaldunen zientzi, elerti eta arti ederraren aldeko grina eta atsegintasuna lantzea, ohiturak zuzendu, zabarkeria, jakineza eta bere ondorio galgarriak erbestetu eta hiru probintzien elkartasuna sendotzea.

Ildo horretatik zijoan bere pentsamentua, bainan asmo hauek lor-tezak, garai hartako ohitura eta egitarauen aldakuntza eskatzen zuen eta gure Kontea ahal neurrian hartara jarri zan. Irakaskuntzan batez ere.

Gaur harrigarria dirudi Zintziaren lanketa eskatzea, ez ordea garai hartan, orduko ikaskizunen egoera ezagutzen dutenek dakiten bezela. Eskolastizismoa eta irakaspide klasikoen menpe Espainiako Unibertsitate agertzen zaigu Europa aldetik gogo, kezka, ikasketa berriak sartuz, berarekin aldakuntzak nabari zirenean.

Beneditar Feijóok zioen bezela, ondo ohartzeak, aurrean ageri zena zuzen epaitzea, norbere ezaguera zuzenaz jotzea zela jakintasunaren aurrera bidea eta ez, orduan ohi zenez, irakaslearen eritzia, klasikoen esaeretan oinarritua, gehiago gabe, begi itxiz, ontzat ematea, egia ukaezina balitz bezela. Ikaskai eta ikaskera berriak ezartzen zijoazen eta bide honetan Peñaflorida aurreratzaile izan zen.

Ordurarte zaldun eta nobleen semeak, estudioak aukeratzekoan, hiru hauetatik bat hartzen zuten: legeak, eliz arau edo kanonak eta gudaritza, besteak ez bait zituzten dinakotzat, burgesentzako egokiagoak zirelarikan. Ohitura zahar hau baztertzeko ezarri zituen Xabier M.^a de Munibek Bergaran, ikaskizun bereziak deituz, zientzia praktikoak, fisika, kimika, adibidez.

Bainan ohartuak izan baziren hasieran, lehenengo urteetan, utzi egin zituzten ikasleak gerora betikoetara joaz. Berak eta beren gurasoen ustean etorkizun errazago eta hobeak eskaintzen zituztelako.

Horrela bada, Bergarako irakasle ziran Proust, Elhuar eta abar, batek urre zuria edo platino garbirik lortuz, besteak wolfram aurkituz hango ikaskizunari izen handia eman bazioten ere, bere ikermina ikasleari txertatzen asmatu ez zuten eta handik joan zirenean zientzia ikasketak lurreratu ziren, Peñafloridaren asmo nagusienetako bat ondatuz.

Bere beste xede bat zabarkeria, ezerez egitearen aurka lan egitea ageri zaigu. Salatze hau ez zijoan, noski, herri xumeari zuzendua, nahiko langilea bait zen, baizik bera bezelakoari, lana lotsagarria zela uste edo esaten zuteneri batikbat.

Ezer ez egite hori Espainiako haundikien artean ohizkoena bait zen. Garai hartako aurreratzaileek asko idatzi zuten gaitz honen aurka. Hara Forondak, lanean jartzea izen onaren kalteko zutela esanez, eskolan, eginkizun ordainduen eta salerosketatik alde gelditu nahi zuteneri zer esaten zien: “asko dira ohorea pergamino zahar batzuetan edo erdi eroriak dauden lau etxetan finkatuz, ofizio ohorezkotan jarriak daudenak mespretxatzen dituztenak. Ohore haundiagokoa ote Estatuarentzat alperrikako diren morroiak, gurdizain, zaldizain edo ilemotzaile eta abar, edo sendi askori jana ematen dieten ola edo lantokiak?”

Gogapen oker hau, dirudienez, Euskalerriko jauntxoetan ere ongi sustraitua zegoen. Hala agertzen zaigu aita Larramendik *Corografian* dioenean: “langintza edo ofizioak ez dira zatarrak berez, inor zikitzen ez dute, ez eta ohorea galdu arazten”. Eta geroago, “beste langintzak ez badira odol ohorearen aurkakoak, gutxiago oraindik nekazaritza edo salerostea”.

Gai honetan Munibe, ez hitzegitez bakarrik, baizik eta eginez ere eredu agertzen zaigu, txikitandik ikusi bait zuen bere aita —Compañía

Guipuzcoana de Caracas-en sortzailea— zeregin hauetan barreneraino sartua. Bere adiskideak hainbat, itxuraz behintzat. Handik gutxira, nahi eta nahiezkoan, haundiki gehienak ere, premia bide, buru lanetara, gutxienez, jarri beharrean zeuden.

Peñafloridaren asmoetatik hirugarren bat, nekez aipatua, ikutu nahi nuke gaur, zuen artean nagoenez gero: euskera zaletasuna. Ongi dakit nere hurren dijozenak gai hau ikutzekoak direla, halaz ere besteen alorretan sartu gabe, nere gogapenen bat agertu nahi dizuet. Honetaz, inork gutxi idatzi arren, Muniberentzat euskera, ez txikitandiko hizkuntza soilik, baizik maite zuen hizkuntza zela ziur dago neretzat. Ezin esan sendi-hizkuntza zuen ala ez, bainan etxetik at erabili zuena edo, nahiago baduzue, erabiliko zuena kezkarik gabe; herriko biztanleekin zituen harremanetan, alkate izate aurretik eta gerora, txistulariari zortziko eta kontrapasak, bereak, erakusten agertzen zaigunean eta batikbat Parrokiko koruan, bere edo besteen euskerazko abestiak abesten edo artezten egin behar zituen saioetan.

Euskera aldeko grina nabarmenagoa oraindik lau jarduera hauetan: 1764'ko batzarrean euskal olerkiaz mintzatu eta, nik dakitela, arkitu gabe dagoen euskerazko Egloga bat irakurri zuenean, *Borracho Burlado* osoa gure hizkuntzan, nahi zuen eran, egin ez bazuen, abestaldiak bai ordea, “zu-ka”, “beorri-ka” eta herrikoagoa den “ik-a” gipuzkoar hiru eratara eta txit ederki idatzia: idazlanean ere eta honen parean *Gavon Sariak* jartzekoak dira. Hirugarren, Bergarako ikasleen Araudian “hizkuntza nazionalak, hau da gaztelania eta euskera erakutsiko direla” ezarri zuenean (1). Azkenik, Aizpitarte hiztegia egitera bultzatu zuenean, edo honen eskutiz batean irakurri ditekeen bezela, agindu zionean (“haver obedecido al precepto de V.S.”).

Berarekin zebiltzan Adiskideak alperkeriaz joak ez zirala jakin arren, akats hori nazionala (“vicio nacional”) agertzen zenez geroz, aurka altxa zuen abotsa hitzaldi batean, entzun nahi zuenak entzuteko eta ondorioak ateratzeko. Zerbait berdintsu egin zuen, neretzat, euskerarekin.

Euskaldunak bazituen Adiskideak, jauntxo taldekoak ez ziren oso euskalzaleak izango eta Muniberen hizkuntza goraiapatze hau gogoz, bihotzez egitez alde, ez ote hotz, edo epel behintzat, ikusten zituenei zuzendutako eztenkadak, zirikadak?

Litekena da ni oker egotea, halaz ere beste arloetan bere joerari begiraturaz, nere iritzia ez da hain zentzu gabea.

Ondore hau zuei agertzea zan nere gaurko helburua. Ezagunak ez diren edo azter gabe dauden paper zaharrek izan dezakete gai honetan azkeneko hitza.

(1) Eta ordurarte euskeraz argitaratutako guztiaren biltzea eskatzean.

EUSKALDUNEN NAZIO ETA HIZKUNTZA (1770-1830)

Donostia, 1985-XII-20

Xabier Altzibar Aretxabaleta

Peñafloridaren heriotzaren 200.urtemuga dela eta, Kondearen garai loretsu hura gure hizkuntza eta herriarekin zerikusia duten kezka nagusietatik urrunegi gelditzen delako ustea ustela izan daiteke, European nazionalismoa haren denboran sortu eta zahartzaroan agertu zela kontutan badugu.

Bi alderdi nahi nituzke begiztatu idazlan honetan. Batetik, europar nazionalismoaren erro kulturek, hots, neoklasizismo, prerromantizismo eta erromantizismoaren ideiek Euskalerrian ere beren ikutua izan zutelakoan nago (1), hain zuzen ere ordura arteko egoera bortizki aldatu eta bi estatuen barruan bermoldatu beharrean aurkitu zenean. Bestetik, etnia eta sorterrizaletasunean, bereziki erasoei erantzuteko sasoian, hizkuntzaren esku hartzea egiaztatu. Horretarako, euskal literaturaren historietan agertu ohi diren egileen, eta zenbait atzerritarrek horiengan izandako eraginaren lekukotasunak jasotzen saiatu naiz. Denboraren hariari jarraituz, mugak, nazionalismoaren sorreran, 1770. urte inguruan, eta 1830.ean edo, hegoaldean, lehen karlistada aurretxoan ezarriko ditut.

Absolutismo burokratikoaren pean hizkuntzaren kontrako erasoei (eskola publikoetan irakasteko debekua, liburuak argitaratzeko eragozpenak, zenbait kultur-gizon arrotzek zabaldutako ospe txarra) eta foruak edozein momentutan galtzeko beldurrak defentsarako prestatu zituen gure intelektual bakan batzu. Hauen artean LARRAMENDI-K estrategia oso bat eskaini zigun. Berak "euskal nazioa" deitzen duena osatzeko hizkuntzak duen *garransia* (berak asmatutako hitza erabili) azpimarka-

(1) Roman BASURTO LARRAÑAGA irakasle eta adiskideari zor diot gai honetan sartu izana. Ikus haren "Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del s. XIX: J. A. de Zamácola". R.I.E.V. 1986. Homenaje a D. Julio Caro Baroja. Lan honetan, europar nazionalismoa azaltzeko Smith-ek darabilen metodoa aplikatu du. A. D. SMITH "Neo-classicist and Romantic Elements in the Emergence of Nationalist Conceptions", in *Nationalist Movements*, edited by A. D. Smith. The Macmillan Press L.T.D. London 1976.

tuz, euskara hizkuntza landu bilakatzeko tresnak prestatu zituen: gramatika —honek batasun premina eta aukera bat adierazten duela— eta hiztegia ez ezik idatzizko euskara eredu bat ere bai, garai hartako eta hurrengoko zenbait testu lekuko. Kontu honetan erakusten duten zabarkeria eta guttiespenagatik etxe barrukoak ere astintzen ditu. Gainera, gure hizkuntza eta herria plazara atera zituen, liburuak argitara emanez eta haren idatzi ideologiko edo politikoak sekuestratuak izan arren (batzu oraintsu arte ezezagunak, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, adibidez), hala ere, European zabaldu zen haren eta gure ospea, Mogelek, etimologia kontuan jesuita barreburlatiak maiz graziazik egiten ez zion arren, autortu bezala (2).

Larramendiren lanak Adiskideen Batzarrean (Sociedad Bascongada de los Amigos del País) izan zuen jarraipena. Erasoak ez zirenez falta (P. Florez, PP. Mohedano...), Apologiaren premia zegoen, nonbait (Egino). Adiskideen Batzarrea, hezkuntza arloan, gure historia, lege zahar, hizkuntza... ezagutu eta lantzen aritu zen, Borbondarrek ezarritako mugen barruan. Hizkuntzari dagokionez, Larramendiren lana osatzea du helburu, Azpitarte, Egino eta zalduntxo talde bat —Peñaflorida eta Narrosen semeak tarteko zirela— nabarmenduz (3).

Atzeritar eragileen artean (4) Guillermo BOWLES nahi dut aipatu. Bere *Introducción a la Historia Natural y a la Geografía Física de España*, (1775) obrak, XV, XVI, XVII. kapituluetan Bizkaia, Bilbao eta bizkaitarrez —esan nahi bait du hegoaldeko euskaldunetz— ari da (5).

Espainiaren deskribapen fisikoan aitzindari izateko asmoa zuen naturzientzilaria hau Euskalerrriaren berezitasun geografikoaz ere ohartzen da. Bowles-ek foru eta ekonomi antolamenduari ederresten zion eta deskribapenetan zertzelada eta datu ugari eskaintzeaz aparte, haren ikusmoldea interesgarria da. Berbarako, izakeraz (“genius and character”) nortasun handikotzat jotzen ditu bizkaitarrak. Eta garai hartan ekonomia aldetik ongundean bizi arren, luxuak ondatutako herrialdeetakoak ez bezalakoak, bakun, sendo, alegera, berdintasun, askatasun eta sorterri zaleak. Era berean neoklasikoek eredu zuten Homero-ren Grezia gogoratzen dio

(2) J. A. MOGEL *Apología de la Lengua Bascuence*, Euskal Erria. “Confieso que aquel Savio ingenioso trabajó qual ninguno en sacar à publico nuestro idioma, que él le ha hecho conocer hasta en Italia, Berlín y Londres; que él sólo era capaz para formar un arte y diccionario, obras originales”.

(3) X. ALTZIBAR “Euskara Adiskideen Batzarrean”. *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*. Vitoria, 1985, t. II, 1119-1135. or.

(4) Atzeritar bidaiariez ikus BASURTO LARRAÑAGA, R. “Viajeros, hidalgos y burgueses. Vizcaya y Guipúzcoa en la segunda mitad del siglo XVIII”. *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*. Vitoria, 1985, 1231-1248 or.

(5) G. BOWLES *travels through Spain with a new to illustrate the natural history and physical Geography of that Kingdom, in a series of letters*. London, G. Robinson. 1780. Badira hemen, gaztelarazko 1775.ekoarekin konparatuta, desberdintasun batzu.

Euskalerrriak, jendemodu, paraje, probetxu handiz landutako lur, antolamentu eta abarregatik (“Recorriendo aquellos países, me parecía haberme trasladado al siglo y a las costumbres que describe Homero”, 298-9 orr.). Bestalde Bowles irlandarra zen eta bizkaitarren eta bere sorterrikoen ohitura, usadio, izakera, erlijio etab. antzekoak iruditurik, etorki bereko egin nahi ditu.

Euskarari buruz hauxe dio: “La lengua que comúnmente se habla en el Señorío, en Guipúzcoa y en mucha parte de Alava, es el Bascuence, que sin duda es original y antigua como la población de aquel país. Al oído suena mui dulce, y los que la entienden, aseguran que es mui expresiva” (1780.eko edizioan: “very soft and harmonious, as well as energetic”).

Ez da harrigarri, beraz, kanpoko jakintsuak euskararen ospe ona zabaltzen —eta etxeko asko txarto esaten— ikusita, J. A. Mogel moduko batek honako hau esatea: “Los Bascongados estan mui satisfechos de la defensa que han hecho de su lengua los Abates Masdeu, Herbas, y el célebre inglés Bowles”. (*Apología de la Lengua Bascuence*, parte 1.^a).

J. G. HERDER (1744-1803) herrien kultur forma guztien alde (erlijioa barne) atera zen eta hizkuntzan oinarritzen den nazionalismoari ats eman zion. Bera ez zen, ordea, nazionalista estu: eslabiar herriei buruzko jakintza suspertu zuen, adibidez. Herder-en iritiz, hizkuntza ezagupen tresna, kulturaren sortzaile eta bilduma, herri baten ‘Genius’ delakoaren erakusle hoberena da (6). XIX. mendeko hizkuntzen eta herri-poesien ernatze eta ikerketa zordun da harekiko.

Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit obra nagusian, 1784.ean (7), gorengo mailako kulturen aitzinekoak edo azpiak ezagutu nahian, arrasto bila dabilela, euskaldunez ari da. Herder-ek Moret, Oihe-nart eta, batez ere, Larramendi ezagutu eta jarraitzen du, honen moduko beste baten jaiotza opa izanez euskaldunei:

(6) HERDER *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* 1772. (*Ensayo sobre el origen del lenguaje*).

Nazio eta giza-banakoaren hizkuntza eta pentsakeraren arteko zerikusiaz: HERDER “Jede Nation spricht (...), nach dem sie denkt, und denkt, nach dem sie spricht”. A. Flitner-ek aipatua in W. v. HUMBOLDT HS. V. 485. or. TETENS, “Wer eine kultivierte Sprache erlernt, erlernt auch zugleich ein fremdes Gedankensystem“ *Über den Ursprung der Sprachen und der Schrift* 1772, 50 orr.

(7) H. W. G. Hempel, IV Theil, 9-12 vol. I. lib., hitzaurre baten ondoren. J. CARO BEROJA *Algunos mitos españoles* 95. orr. “Al hablar el filósofo alemán Herder de los vascos, con verdadera simpatía, en sus *Ideen zur...* se lamenta de que la poesía de este pueblo, que él suponía que debía de ser tan interesante o más que la escocesa dada a luz por Macpherson, que estaba maravillando al mundo, no estuviera recogida, y dice...” Hala ere ez dakar testua osorik.

“Zu wünschen wäre es, daß wir die Sprache, die Sitten und die Geschichte dieses raschen und frohen Volks mehr kennten, und daß, wie Mac Pherson unter den Galen, ein zweiter Larramendi, unter ihnen etwa auch nach Resten ihres alten baskischen Nationalgeistes forschte” (8).

HERVAS-ek (1784-1809) 1784.ean italieraz eta 1803.ean gazteleraz (*Catálogo de las lenguas*, vol. V) argitara emandako liburukietan Europako hizkuntzen artean ageri da euskara. Hizkuntzen arauz sailkatzen bait dira nazioak, Hervas-ek hizkuntza amaki eta dialektuak mugatu nahi eta, Larramendi duela maisu, euskara Babeldik datorren hizkuntza amakitzat jotzen du, esan nahi bait du aintzinakoa, senidegabea edo zurtza (9).

(8) Hona hemen Herder-en textua, osorik euskaratuta (nahiz eta orrazaldi bat behar lukeen):

Aintzina, espainiar peninsulan bizi izan ziren tribu ugari guztietatik, garai zaharrenetatik, euskaldunak dira gelditzen diren bakarrak, Pirineo mendien inguruan egoitza izanik, beren hizkuntza zaharra, munduko hizkuntza zaharrenetako bat, gorde dutenak. Badirudi hizkuntza hau aintzina Espainiako parte zabalenera hedatu zela, gaur ere, aldakuntza guztiak gorabehera, herrialde horretako hiri eta ibai izen askok erakusten dutenez. Gure *Silber* hitzak, burdinarekin batera Europan eta mundu guztian iraultza gehienak martxan jarri dituen metalarenak ere, haiena izan behar du. Tradizioaren arauera Espainia izan zen bere meatokiak hustiratu zituen Europako lehen lurraldea, zeren eta eskualde horretako nazio merkatari goiztiarrenetatik, feniziar eta kartagotarrak, hurran eta eskuar bait zegoen; haientzat lehen Peru izan zen. Herri berak, euskaldun eta kantabriar izenez oso ezagunak direnak, historia zaharrean herri bizkor, arin, kementsu eta askatasunzale agertu dira. Hanibal lagundu zuten Italiara eta erromatar poetengan izen beldurgarria dute. Espainiar zeltekin batera, uztarria ezartzen erromatarrei zailen gertatu zitzaizaienak izan ziren. Beraz, Augustok, lehen aldiz eta, agian, baita itxura denez ere, garaitu zituela; zerbitzatu nahi izan ez zutelako mendietara joan zirela. Bandaloeak, Alanoek, Sueboek, Gotoek eta beste herri teutoniarrek beren iragate basatia Pirineoetatik egin zutenean, eta haietako zenbaitek hauen auzoan erreinuak eraiki zituztenean ere herri kementsu eta geldiezina zen, Erromatarren pean bere adorea galdu ez zuena, eta Karlomagno espainiar sarrazenoak setiatzetik itzultzerakoan, haien lurraldetik iragan zenean ere, eraso maltzur baten bidez, hain hondamen ospetsua —zeinean Roland hil bait zen— jasan erazi zieten Orreagan. Geroroko Espainian eta Akitanian Frankoei, Suebo eta Gotoei bezala, zeregin handiak eman zizkieten. Sarrazenoen eskuetatik lurak berriz bildu aldian ere ez ziren atsedenean egon, ez, eta milagarren urte inguruan elizgizonen aldetik beren izakera basatiaren zapalketa gogorrena jasan zuten garaian ere bere horretan gorde zuten, Gau luzearen ondoren Europarrentzat egunsentia iritsi zenean, auzoko provenzarren poesia alaiatzat urratu zen, haien bizileku izandako eta, geroroko ere, Frantzia hainbat izpiritu argitsu eta alai emandako lurraldeetan. Desiagarria litzateke guk herri bizkor eta alai honen hizkuntza, ohiturak eta historia hobeki ezagutzera eta, Galotarrengan Mac Phersonek bezala, haien baitan beste bigarren Larramendi batak euskal izpiritu nazional zahararen azterrenak ere, agian, hartzea. Roland-en erasoaldi ospetsu haren legenda, Turpin Arzapezpiku alegietakoaren bidez Ertaroko hainbat roman eta poema epikori bidea eman ziona, agian haien baitan ere gorde da, eta hala ez bada, gutxienez haien lurraldea Troiako atea izan zen, hantxe bertan gertatu bide ziren abenturez Europako herrien fantasia luzaz asetu zuena.

(9) LARRAMENDI, Diccion. Trilingüe, XII “No tiene el Bascuence origen, descendencia, afinidad ni semejanza con otra alguna lengua en todo ni en parte, en quanto a su alma, ò la harmonia de sus reglas, y construcción.”

Hervas-en obrak bihotz eman zien Mogel eta Astarloari, Adelung, Vater eta Humboldt ere baliatu zirelarik, euskaldunei mesede eginez. Gainera, euskararen ikaste zientifikoa eta Akademia espainiar nazioaren ardura omen da:

“La nazione spagnuola più di nessun'altra crediamo costretta allo studio scientifico del Bascuence, ed all'erezione di un'Accademia Bascuence...” (9 bis).

Ezaguna denez, errakuntzak (euskal hitzak latinean, Italiako toki-izenetan...) nabariak diren arren, aportazio garrantzizko batzu ere egin zituen: sustratoaren teoria (10), zelta hizkuntza inoeroparra delakoa, euskara eta zeltaren bereizketa (aspaldiko auzi bat erabakiaz)...

1785.ean DOM SANADON-ek (apezkiku konstituzionala 1791.ean) Paben argitara eman zuen, izen gabe, *Essai sur la noblesse des Basques, pour servir d'Introduction à l'Histoire générale de ces Peuples. Rédigé sur les Mémoires d'un Militaire Basque, par un ami de la Nation*. J. P. Vignancour Imprimeur du Roi et du Parlement. In 8-254 or. Hurren urtean, DIEGO de LAZCANO “frantsestatu”aren gaztelerazko itzulpena atera zen De la Lama-renean, Tolosan, 268 or. in-8 (11).

Frantziako Fiskuaren administratzaileek Behenafarroaren eskubide naturalak, feudaltzat joaz, zapaltzean egiten zuten bidegabekeria histori eta zuzenbidezko arrazoi bidez frogatu eta euskaldunen historiaren sarre-ra izan nahi du, saio baino areago, apologia edo idazlan ideologiko-politiko honek. Esan gabe doa egileak, erasoen ondorioei igarririk, Euskal Herri osoa duela gogoan. Nola gipuzkoar eta lapurtarren, hala hegoalde eta iparraldeko euskaldunen berdintasuna ahazten, odol eta askaziaren mintzoari entzungor eta etorkiari (hegoaldea omen ama sorterrria) uko egiten eta frantses amorratu agertzen direnen jokaera gaitzesten du.

Ez nauzue historia aldetik duen balioa aipatzeko asmotan, noski, baina protesta ezinbestekoa da: “Si ès conforme à la razón el que los hombres vivan unidos en sociedad (...) no lo es menos que ningun

(9 bis) Idea dell'Universo, vol. XVI. *Catalogo delle lingue conosciute*. Cesena. 206. orr.; “un Accademia nazionale dell'Idioma Bascuence, necessaria ancora per illustrare la storia di parecchie nazioni e principalmente quella de'Romani”. *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas y enumeración, división, y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos*. Madrid 1800-1805, 6 vols.

(10) E. COSERIU “Hervás und das Substrat,” 1978, *Studii si cercetari lingvistice*, 29 523-530. A TOVAR *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Alianza Editorial 1980.

(11) Lazcano beraren hitzez: “Traducción defectuosa (...) en muchos lugares me aparto de él (...) se justifica tratándose de cosas que no perjudican al intento de la obra (...) no podía menos de tomarme la licencia que me he tomado hasta por motivos políticos”. Komenigarri litzateke Sanadon-enarekin gonparatzea.

estrangero debe sojuzgar, y privar de su independencia, à las Sociedades que ya están formadas ò que se van formando.”

Aipatzen dituen iturriak Isaac de Bela (ustez *Mémoires* horien idazlea), Marca, Strabon, Plinio, Garibay, Echave, Oihenart, Mariana, Zurita, Larramendi, Foruak etab. dira, eta euskal nazioaren ezberdintasun edo berezitasuna eta jatorrizko askatasuna defendatzerakoan erabiltzen dituen argudioak honako hauek: 1) Aintzinasuna, froga euskara dela (12). 2) Nazioaren jatorrizko elementuak (hizkuntza, batez ere, baina baita lege erakunde, ohitura, usadio, odol, izakera, bizimodu, ‘genio’ delakoa, estiloa...) eta hauen batasuna garbi gorde izana (13). 3) Orobatsu libertatea, hau delarik aurrekoen iraunkortasunaren arrazoi. Libertate hori defendatzeko euskaldunek Errepublikak edo Konfederazio bat osatu omen zuten (14). 4) Lurraldeak betidanik okupatu izana.

Argudio hauek euskal nazioaren ezberdintasuna edo berezitasuna eta jatorrizko askatasuna azpimarkatu nahi dute. Ondorioz, lehenik, foru eta ‘franquicia’ horiek ez dira, Sanadon-en eritziz, bestek emanikoak, euskaldunek betidanik usatu eta erabili dituzten legeak edo zergagabatasuna baizik. Eta, bigarrenik, euskaldun den oro (eta behenafartarra goinafartarra bezala) noble da jatorriz, hots, feudalismo aurretik, eta beraz, lege feudal horietatik aske.

Iraganaren ikuspegia, noski, garaiko arazoan aurreko politikak moldatzen du. *Essai sur la noblesse des Basques* frantses estatuaren erabateko uniformetasunari oldartzen zaio (15). Bestalde liburu hau, zenbait aldetik, Zamakola eta D’Iharzeren. aitzindari dateke.

(12) “2.º Que cette langue antérieure à tous les établissements faits en Espagne par les Nations étrangères, ne s’étant conservée que chez les Basques, ces Peuples sont en droit de se regarder comme les plus anciens habitants qu’ait eu l’Espagne; d’autant que les caractères qui constituoient cette Nation primitive, la liberté, les moeurs et la langue, ne se retrouvent plus que chez eux “...” *Essai* 25. or.

“Le caractère de la langue basque fournit encore une nouvelle preuve de l’antiquité de la nation qui la parle. A l’imitation de la langue hébraïque, presque tous les noms appellatifs, y ont une signification réelle...” *Essai* 22. orr. “Abondante en termes propres à énoncer les objets qui étoient anciennement d’un usage général; elle en manque pour exprimer plusieurs objets, dont l’usage est plus récent.” 23. orr.

(13) “Le moyen le plus sûr qu’aient les Peuples pour connoître et justifier leur descendance, est de considérer la langue, les moeurs et les coutumes de leurs ancêtres [Hume, Hist. d’Angl.], et d’en faire ensuite la comparaison avec celles des Nations voisines et avec les leurs propres, pour juger de la ressemblance ou de la différence. C’est ce que nous allons essayer de faire pour les Basques” *Essai*, 41. orr.

(14) “Baxo de este nombre [Cantabros] se comprendían muchos pueblos vecinos, unidos por la identidad de origen, lengua, usos y costumbres (...) y que viendo los progresos, que los estrangeros hacían en España, se formaron en cuerpo de República o de confederación [de siete pueblos], para defender su independencia y su libertad”. *Essai*, 34. or.

(15) “Différens de tous les Peuples qui les environnent du côté de la France par leur langue, leurs moeurs, leur lois et leur police; je dirai même par un goût décidé pour la

Iraultzak, baina, euskaldunen libertateak galdu zituen eta sortutako protestak euskara mintzatzen zuen popularean nortasun edo iraun nahia-
ren euskarri eta beste herriekiko berezitasuraren ezaugarri zela aditzera
ematen digu (15 bis). Bestelakoa dirudi hizkuntzari dagokionez, iraultza-
buruzagien jokabideak. Adibidez, Abbé Gregoire-k argien zabalkundera-
ko eragozpen zeritzon, hainbat hizkuntza eta hainbat herrik merkatalgoa-
ren harat-honata, gizarte-harremanak eta frantses hizkuntza tratatzen
zutelako.

HUMBOLDT (16) (1767-1835), klasikoen ikaskuntzan eskolatua eta
kultur giro aberatsean umotua genuen: ilustratu eta prerromantikoen
eztabaidak, Goethe eta Schiller adiskideen literatura, aleman nazionalis-
moaren sustrai filosofiko eta kulturalak, hizkuntzalaritza konparatibo eta
historikoa ernamuetan... (17).

Hona baino lehen hizkuntza landuak zituen aztergai, besteak beste
(18), baina, ikuspegi zabaleko zenez, Europako hizkuntzen artean euska-
raren berezitasunak erakarrita, gogotik atxiki zitzaion hogeitaz urtez (19).

liberté, et une certaine inquiétude, que le seul nom de dépendence suffit pour révolter (...)
paraissent encore aujourd'hui plutôt une colonie étrangère, transplantée au milieu de nos
Provinces qu'un Peuple de Français civilisés, habitués à vivre sous les lois et l'autorité d'un
Monarque..." 55. orr.

(15 bis) Cfr., adib. LARRONDE "Protesta de los vascos con ocasión de la creación del
Departamento de los Bajos Pirineos (1789-1790)" Muga, nº 14.

(16) W. v. HUMBOLDT: *Gesammelte Schriften* (G.S.), A. Leitzmann. Idem *Werke in
Fünf Bänden* Hrsg. Andreas Flitner eta Klaus Giel (H. S.) 1960-1981. (Iruzkín, ohar eta
Bibliografia interesgarri hornitua da V. tomoa). J. GARATE, *G. de Humboldt. Estudio de sus
trabajos sobre Vasconia*. Eusko Ikaskuntza, 1925: *Guillermo de Humboldt y el P. Vasco
(Diario del Viaje Vasco. 1801. Los Vascos. Bocetos de un viaje)*.

Humboldt-en biziaz eta lanaz ikuspegi orokor batetarako, A. FARINELLI *Guillaume de
Humboldt et l'Espagne*, Paris, 1898, eta Torino, 1924. Euskararen arloan hark ekarriaz, L.
MITXELENA "Guillaume de Humboldt et la langue Basque," oraintsu berriz argitaratua.
Lengua e Historia. Paraninfo. Madrid, 1985.

(17) Prerromantiko (Herder, Jacobi...) eta ilustratuen eraginaz ari garela, iraultza erdi
berria zuen Parisera, 22 urteko zela, Campe ilustratuarekin badoa, Espainiarako lehen
bidaian Rousseau-ren *Emilio* darama sakelean (GARATE. *Estudio de sus trabajos sobre
Vasconia*, 29, orr.). Humboldt izpiritu libre, praktikoko -ilustratu gisa- eta munduko herritar,
Herder eta bezala, dugu.

(18) Beste langai batzu literatur-kritika eta hizkuntza eta pentsakeraren arteko harre-
manak ziren (G. BOSSONG "Wilhelm von Humboldt y Hugo Schuchardt: dos eminentes
vascólogos alemanes"). Baita nazio-izakera eta hizkuntz desberdintasunaren artekoak ere
(HS, V, A. Flitner, 459. orr.) Goetheri eginiko gutunean (1800-12-16) adierazten denez,
tratatu bat idatzi nahi du horretaz, aurrelana 1801.eko *Fragmente der Monographie über die
Vasken* eskuizkribua, 1907. ean argitaratua, delarik.

(19) G. BOSSONG aipatu art. "El estudio del vascuence constituye, tanto para Hum-
boldt como para Schuchardt, un impulso inicial (...). Después del vascuence, Humboldt va
a estudiar las lenguas indígenas de América (...). Sin embargo, el campo donde el impulso
inicial del vascuence se pone más de manifiesto lo constituyen las lenguas del Cáucaso (...)
para descubrir, por vez primera, la notable semejanza tipológica entre los sistemas verbales
caucásico y el vasco".

Euskalerria bititik eta tokian bertan, beste herri eta kulturak bezala, ezagutu nahi eta hala egin zuen, euskaldunei buruzko begirari zorrotzena izateraino iritsiz. Politikagizon edo diplomatiko bezala ilustratu kontserbadore, aurrerazale baina ez iraultzaren aldeko genuen (20), eta hemen izan zituen informatzaile politikoen, bereziki Josef de Murga-ren, eragina kontutan izatekoa da, agian. Nolanahi ere, Humboldt-ek ez zuen *Los Vascos* edo *Diario del viaje vasco. 1801* -gaztelerazko itzulpenen tituluak aipatuko ditut- (21) argitaratu eta Errepublikak garai arte, hemen behintzat, ezin izan zen ezagutu.

Izan ere, Humboldt-ek bere bizian argitaratuak —gabeetatik (22) bereziz— hauek ditugu: *Anuncio de una publicación sobre la lengua y nación vascas con noticia del punto de vista y contenido de la misma*, 1812.ean (23), eta, batez ere, ADELUNG eta VATER-ek euskal edo kantabriar hizkuntzaz *Mithridates oder allgemeine Sprachkunde* obran (24) esandakoei zuzenketa eta gehigarri den *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung* (25), alemanez, 1816.ean, eta hurren urteko *Primitivos pobla-*

(20) 1802-1821 bitartean aritu zen. Vienako Kongresuko partaide. 1819.ean Prusiako Irakaskintza-ministru. Berlingo Unibersitatearen eraikitzaile.

(21) Ezaguna denez, bi egin zituen Euskalerrira, lehena Espainiarakoan, iragaitzez, eta bigarrena berariatz, 3 hilabetez Ipar eta Hegotik zehar ibiliaz. Udaberria zen, 34 urte zituen eta bere bizitzako unerik zoriontsuenetako batean izan genuen gure artean.

— *Die Vasken oder Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und französische Baskenland im Frühling des Jahres 1801 nebst Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation, und einer Kurzen Darstellung ihrer Grammatik und ihres Wörrervorraths.*

— *Tagebuch der baskischen Reise 1801.*

Bidaia argitaratu nahiean ibili zen, ordea (Goethe-ri gut. 1806-4-12). Jose Maria de Murga-k (1770-1834), idazlan politikoez gain, *Vidas de célebres varones griegos y romanos* eta abar idatzi zuen.

Humboldt-en ikuskeraz, L. MICHELENA, aipatu artik.

(22) Eskuizkribuen idazketa, zuzenketa, lehen asmo etab-ez ikus J. GARATE *Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Euskaldunei buruzko idazlanak monografia baten osagai dirateke (A. W. Campe-ri gutuna, 1802-6-28): bidaia, gramatika, hiztegia (*Berichtigungen...*) eta nazio eta hizkuntzaren etorkia (*Prüfung...*).

Argitaragabeez, ikus J. GARATE-ren aip. obr.

(23) *Ankündigung einer Schrift über die vaskische Sprache und Nation nebst Angabe des Gesichtspunktes und Inhalts derselben*. Deutsches Museum, 1812, II, 485-502 or., Königsberger Archiv. Mahn, *Denkmaeler*, Berl. 1857. G. S. III 288. or. Leitzmann-en oharra. Gaztelezaraz, J. GARATE *Estudio de sus trabajos...*, 115. or eta eta R.I.E.V. XXII, 1931.

(24) *Mithridates oder allgemeine Sprachenkunde mit dem Vater Unser als Sprachprobe in bey nahe fünf hundert Sprachen und Mundarten*. Vierter Theil. Berlin, in der Vossischen Buchhandlung. 1817. Aurretik, Berlin 1806-1817, IV, 275-360, 1809.ean agertu zen, II. tomoan: “Cantabrisch oder Baskisch”. San Petersburgoko *Vocabularium Comparativum gisakoa*, aspaldiko tradizio poliglota baten amaiera da. Larramendi eta Oihenart dira oinarri. Iturriez ikus J. URQUIJO, *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la Lengua Cantábrica o Vasca*. Prólogo R.I.E.V., 1933, eta A. TOVAR, *Mitología e ideología...*, 138. or.

(25) *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Kantabrische oder baskische Sprache*. 1811.erako bukatua, 1816.ean argitaratua.

dores de España y Lengua Vasca, “vascoiberismo” deitu teoria finkatu zuena (26). Gramatika, morfologia eta lexikoaz ari da hauetan, Astarloa duela maisu, nahiz eta bere irizpideak izan.

Humboldt-entzat hizkuntza bat herri baten pentsa eta senditzeko molde edo marka bizia zen (27) eta euskara jatorriz herri enbor berezi baten hizkuntza trauskil eta landugabea (“röhe und ungebildete Sprache”) (28), bere jatorrizko garbitasunean gordetzen zelako hizkuntzen

Arguinzoniz-ek gazteleratu eta Aizkibel-ek oharrak jarri zizkion (J. UROUJO, *Correcciones y Adiciones...* R.I.E.V., 1933). ADELUNG-VATERen *Mithridates oder...* IVTeil, 1817.ean argitaratu.

Hiztegiak, letra bakoitzaren esanahiaren (Astarloaren) teoriak, bokale eta konsonante batzuen azterketak etab., ikus A. TOVAR, *Mitología e ideología*, 151-2.or.

Gramatika eta hiztegia laburki, Antologian Mogelen 2 testu eta Lelo-ren kantua. Azken honetak, ikus J. CARO BAROJA *Algunos mitos españoles. Ensayo de mitología popular*. Madrid 1941.

(26) *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vaskischen Sprache*. Berlin, 1821.

Euskara ibero, hots, europear lehen biztanle indogermaniar ez zirenen hizkuntza eta Peninsulan hedatua omen zelako teoria ez da orijinala. Ikus TOVAR *Mitología e ideología* 157. or. “Las principales conclusiones de esta monografía de Humboldt, fueron aceptadas casi sin discusión, sobre todo en Alemania. Sobre ellas construyeron sus estudios tanto Hübner como Schuchardt, y en nuestro tiempo esta teoría, que Caro Baroja llamó “vascoiberismo” se mantenía todavía no caducada hasta después de 1940: la identidad del vasco y el ibérico, la extensión del vasco por toda la península, según se ve en la toponimia; la presencia de iberos, mezclados con celtas, en Lusitania y en las regiones del norte, fueron tesis muy generalmente aceptadas. La importancia de los celtas en la Península fue en cambio menos generalmente reconocida. (...) Tampoco se continuó la tesis de una posible relación originaria entre iberos y celtas”. L. MITXELENA “Mitología e ideología de la lengua vasca” (Tovar-en liburuaren erreseina kritikoa), Muga 10, 1980. “...pone digno remate a una tradición que contaba ya como tres siglos de vida”.

Prüfung-en metodo eta gonparaketa teknikaz ikus baita L. MITXELENA-ren erreseina ere: “W. von Humboldt. Primitivos pobladores de España y lengua vasca”. Ediciones Minotauro. Madrid 1959. BRSVAP 1950, XV, 95-7.

(27) H. S. II, A. Flitner, 430, “lebendigen Abdruck ihres Denk- und Empfindungsart”.

(28) W. v. HUMBOLDT, *Gramática Vasca* (J. GARATE *Estudio de sus trabajos ...* 159. or) Hizkuntza landuak sinpleagoak formaz, erregela ez hain erabateko eta orokor, eta etorkitik urrunduagoak dituztenak omen. Landu gabeak, aldiz, formaz ugariagoak, eraketan bakunagoak, etorkitik hurragokoak. “Todos los idiomas cultivados están alejados de su forma primitiva por una gran cantidad de alteraciones o posiblemente y más de una vez derivados de un idioma más rudo”. “La lengua vasca debe por esto siempre ser mirada como una lengua adaptada al estado antiguo de cultura de los hombres y aquéllos que se le comparan por su gradación son de pueblos rudos y bárbaros, como los americanos principalmente”. Ilustrazioaren aldekoentzat, hizkuntzaren garapena abstrakziorako gaitasun edo adierazkortasunarekin lotua dago. Herder, Hamann etab.-entzat (eta Humboldt horiekin batean) ez dago lokarririk.

HS, V, A. Flitner 634 “Es mag sein, daß die Vorliebe für die wilden Mundarten und die „rohen und ungebildeten Sprachen“, die Humboldt auf seiner Reise durch das Baskenland entwickelt hat, ein Erbe der Anthropologie des 18. Jahrhunderts und des darin kultivierten Interesses an den exotischen Kulturen darstellt; die Sprachtheorie Humboldts verdankt dem Studium der „Volksprachen“ ihre wichtigsten Impulse und ihre charakteristischen Züge, mit denen sie sich von der historischen Sprachwissenschaft abhebt” (Conf. Grimm-i gut. 1827-7-8).

arteko konparaketarako eredu zatekeena, Europako prehistoriarako interes biziko izateaz gain (29). Bestalde, orduko ezaguna zen euskara hizkuntza amaki zaharrenetako bat eta besteekin elkartasun gabea zela. Baina ez zitekeen, ez Frantzia, ez Ingalaterra, ez Alemanian, oinarritzko ikasbide edo libururik eskura. Eta ordurarte jakintsuak erakarri ez bazituen ere, premian ginen une historiko hartan Humboldt-en arartekotza ezin egokiagoa suertatu zen (30).

Baina euskara, mintzaturik behintzat, ez zuen ongi ezagutzen (31). Eta ikuspegi genetiko eta sinkroniko batetik begiratuta, garaiko hizkuntzalari-tza konparatu eta historizistaren aldean atzean gelditzen da (32). Eta Herder-en hizkuntz-filosofia edo kultur-antropologiatik hurbilago den arren, hizkuntza eta pentsakeraren arteko harremanak aztertzerakoan, euskarari dagokionez, zehaztasuna falta nabari zaio (33). Dena dela, gure hizkuntzaren ikerketari hark ekarria ez da baztertzekoa (34).

Humboldt alemanarentzat euskaldunek nazio bat egiten dute edo dira, hizkuntzek mugatzen edo biltzen bait dituzte nazioak, ez Estatu-politikak edo lurralde baten barrutiko botere batuak (35).

(29) *Anuncio de una publicación sobre la lengua y nación vascas*, RIEV XXII. TOVAR, aip. obr. 154. or. Aurretik Hervas, Catal., vol. V, 262-3 or. "...su conocimiento sirve para ilustrar la historia primitiva de las naciones que fueron, y son las principales de Europa, y también la historia de las lenguas".

(30) L. MITXELENA, *G. de Humboldt et la langue basque*: "La brèche d'un isolement qui s'effritait déjà pendant la deuxième moitié du XVIII^e siècle, s'est ouverte au moment où un puissant mouvement d'idées, nê et développé surtout en Allemagne, mêlait ses remours aux renversements socio-politiques, qui avaient déjà frappé de mort l'Ancient Règime européen".

"Pour nous, basques, Humboldt a représenté le premier contact réel de la tradition linguistique locale, qui avait alors atteint un haut sommet, avec la tradition scientifique occidentale".

(31) L. MITXELENA, aip. art. "H. n'a jamais eu, il l'avoait volontiers, une connaissance suffisante de la langue parlée".

(32) L. MITXELENA, aip. art. "Humboldt, qui devançait ses contemporains par l'ampleur de ses conceptions en linguistique générale, était plutôt en retard sur son siècle quant à la considération historique de l'évolution des langues".

(33) L. MITXELENA, aip. art. "H. (...) n'arrive jamais à une estimation précise de la valeur de la langue basque en tant qu'instrument de la pensée individuelle et collective".

(34) L. MITXEL, aip. art.

(35) HS, V, A. FLITNER, 464.or. "Der Begriff der Nation ist bei Humboldt noch nicht Staatspolitisch, sondern in der ursprünglichen Bedeutung von natio zu verstehen. Er wird hier an Hand des Korrelats Sprache definiert: die 'getrennte' und doch in höherem Sinne verbundene Individualität". 469.or. "Im Gründe ist die Sprache... die Nation selbst". L. MITXELENA, *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madr., 183. or.

Euskaldunak, leinuz, beste europar herriekin senidetasunik gabeko eta herri-leinu berezi (36) dira, beren jatorrizko izakera garbien eta bortitzen gorde dutenak, izakera hori euskarak erakusten duela.

Euskaldunen nazio-izpiritu eta nazio izakera (37) ere euskarari loturik daude, folklorea, ohiturak, geografia... haren agerpen izanik.

Herri-hizkuntza jatorrena, ahozkoa alegia, zientzia eta literaturan erabiltzean, herrikoitasuna galtzeko arriskuan omen dago (38). Humboldt, herri-kulturaren (“Volkskultur”) eta euskal naziotasunaren erakusburu diren kanta, poesia, ipuin, kondaira, atsotitz, musika, dantza, eta abarren maitale eta biltzaile izan zen eta, dirudienez, gure lehen folklorea (39).

Herri-hizkuntza herri-kulturari loturik dago, beraz. Ilustrazioa hizkuntza eta herri-kultura horri itsats dakioko, hala ere (40). Arriskua hizkuntzaren endekatze eta gainbeheran eta landuen kultura herrikotik urruntzearan omen dago (41). Honetan Humboldt-ek liberal ilustratu eta erromantiko-historizisten arteko arazo nagusi bat aurkezten du (42).

(36) HS, V, 646.or., A. Flitner “Weiter unten 117/35 wird die These aufstellen, daß die Basken nicht nur ein Volkstamm, sondern ein Völkerstamm sind, wie die Slaven oder Germanen. So hoffte Humboldt an den Basken studieren zu können, was „reiner Stammcharakter heißt“ HS II, 426.

(37) A. FARINELLI *G. de H. et l’Espagne* 18.or. “Toute recherche du caractère national, toute recherche historique doit donc partir de l’étude de la langue”. Ibidem, 37. or. Goethe-ri gutuna “No hay otro pueblo (...) que tenga un carácter tan profundamente nacional como el pueblo vasco, ninguno que haya conservado su fisonomía original con relieve tan puro y tan marcado”. *Los Vascos*, 118.or. (E. Ikaskuntza, 1925).

(38) *Los Vascos*, Eusko Ikaskuntza 1925, 123.or.

(39) A. FARINELLI, *G. de H. et l’Espagne*, 169.or., R. M. AZKUE “Algunos manuscritos encontrados en la Biblioteca Nacional de Berlín”, *Euskera* 1925, 60.or., J. de RIEZU “Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt Canción del vino”. Herri kantez, *Anuncio de una publicación...*; ipuinez, *Los Vascos* 255; kondairez, *Los Vascos*, 285.or., G. S. VII, 1., 207.or.; dantzez, *Los Vascos*, 235.or. “parte de la organización del país”.

(40) *Los Vascos*, 122, 123, 124. Antzeko ideiak FICHTE-gan, *Discursos a la nación alemana*.

(41) HS, V, Flitner 614 „Humboldt glaubte eine Tendenz zur Aufspaltung des Geisteslebens in zwei disparate, auseinanderdriftende Kultur-formen feststellen zu können: die *Volkskultur*, die in dem Maße in Dumpfheit zu versinken schien, als sich die *Kultur der literarisch Gebildeten* von ihr entfernte (...) Diese Tendenzen liegen zwar im Wesen der Sprache begründet, sind aber mit der Gefahr eines Zerfalls der nationstiftenden Funktion der Sprache verbunden...“.

(42) HS, V, 614, Flitner “Am Beispiel der Basken glaubte Humboldt zeigen zu können, wie die assimilierende Kraft einer intakten Volkssprache den gemeinschaftssprengenden Kräften des Fortschritts entgegen wirkt. (...) Die noch nicht durch Ständegrenzen zerrissene Volkssprache und Volkskultur schien ihm der historischen Eigenart und der selbstberöffneten Modernität beispielhaft zugänglich. Das Zentralproblem der historisierend-romantischen und der liberal-aufklärerischen Kulturtheorie war für ihn gerade aufspürbar”.

Humboldt-ek argi ikusi zuen euskaldunek beren hizkuntza, izakera, legedi eta lurraldearen ezberdintasunaren kontzientzia zutela. Eta hemendik nazio-sendimendu bat sortzen zela, areago, herrikoitasun (patriotismo) edo sorterrizaletasun bat, gehiegizkoa izan zitekeena (43). Eta, nazioari leial atxikiarren, elkarren lehian zebiltzala ere bai, txokokeria hizkuntzan ere nabarmenduz.

Baina, absolutismoaren gainbehera eta nazionalismoaren indartzeko garaian nazio batek Estatu-politikatik ate ezin zuenez bizi, auzi historiko garrantzitsu bat erabaki behar zen, hots, nazio txiki batek, beste batzuekin elkartzean, Estatuarekin nolako harremanak izango zituzkeen. Humboldt-entzat gurea kasu bakarra ez zen eta, gainera, ezberdintasunak, eragozpen beharrean, baliagarri zitezkeen (44).

Beste aukerarik ezean, euskal nazioaren gainbehera (45) betikoa, are hizkuntzarena, igarri uste izan zuen. Ez, ordea, espainiar gobernuaren erasoek denentzat ekar zitzaizketen kalteei oharterazi gabe (46).

Honela laburtu zigun 1817.ean berak Euskalerrrian ikusi eta ikasia:

“El sentido para la conexión íntima entre el carácter de un pueblo, su lengua y su país, se me descubrió muy de otra forma (...) por haber permanecido algún tiempo en medio del notable pueblo: a) de quien es propia esa lengua que mantiene con apasionado amor, b) cuyo sentido nacional resplandece en todo, sintiéndose distinto en su marco, tanto por su lengua vieja, pura y originaria, como todavía entonces por sus libertades y constitución propia dentro de una poderosa Monarquía, c) cuyo

(43) *Bocetos de un viaje a través del País Vasco*, 299, 307.or. *Los Vascos*, 124, 171, 227, 307.or. “Se gozan en sí mismos y en su patria, junto a la cual nada les parece estimable. Tienen una tendencia sensible a hacerlo notar a los extraños”. Mogel-ek ere badio: “erri-coieguia danac euquico ditu beguiac, beintzat bai erdi geundu ta leusotuac” (P. A.) Aiton semetasunetik sortzen omen (*Los Vascos*, 189) eta klaseen arteko ia berdintasun eta antolamendu egokiarekin zerikusia du (*Los Vascos*, 308.or.).

(44) *Los Vascos*, 126. or. Euskararen etorkizunaz ere ez zen baikor: *Ueber die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaus*, 281. or., 139. part. (J. GARATE, aip. obr., 212. or.) *Los Vascos*, E. Ikask., 121-2, 283. or.

(45) A. FARINELLI, aip. obr., 143. or., “Humboldt est d’avis que l’histoire de la décadence des Etats offre, en général, plus d’intérêt que l’histoire de leur grandeur...”. L. MITXELENA, aip. art., 129. or. Gainbehera hori ohituretan eta folklorean ere nabari da: *Los Vascos*, 236.or., *Diario del viaje vasco*, 49, 98. or.

Espainiar gobernutiko eraso eta euskararen zapalketaz, *Los Vascos*, 125, 177.or.

(46) *Los Vascos*, 265 “...el gobierno español (...) perdería por el hundimiento del patriotismo y del espíritu nacional, que sería una consecuencia indefectible de la restricción de las libertades vascongadas”. “Si se ataca este espíritu público en su raíz, por cercenamiento de la libertad política, si se le quita al vasco el pensamiento de que trabajan por la felicidad y el nombre de un pueblo propio, aislado, más entregado a sí mismo, y apoyado en sí mismo, entonces cae todo de una vez en ruinas,...” Espainiaren osagaiztasuna, Napoleonekiko gerra ondoren, batez ere, iragarri zuen: FARINELLI, aip. ob., 205. or.

valiente ánimo y vigorosa actividad se expresa en el doble carácter de montañés y marino condicionado por su hábitat, y d) que desparramado por las lejanas comarcas de la tierra, siempre mira al pequeño punto de su patria, en la que los repatriados al final de su larga carera compiten en dejar monumentos que hermoseen sus lugares natales” (47).

Konbentzioko guda ondoan, Godoy-ren gobernuaren planen barruko edo kontrolpeko Histori-Akademiaren *Diccionario Geográfico* (1802) eta Llorente-ren *Noticias Históricas de las tres Provincias Vascongadas* (1806-1808) liburuetan Bizkai-Araba-Gipuzkoaren menpekotasunik eza eta Gaztelako Erregeekiko ituna ukatzen zen, orobat euskararen aintzinasuna —azken baten berezitasuna— zeren eta berezitasun hori erakundeena bait zen (48).

Bestelakoa izan da, gure kasuan, Eliza edo Elizen jokaera Trentoko kontrarreforma ondoren babespeide gisa euskara erabili duena (49). Eliza eta Estatuaren jokabide desberdinok eraginda, 1800. ingurutik aurrera, alde batetik euskara eta erlijioaren arteko harremanak estuago doaz (euskarazko eliz-liburuen gorakada lekuko) eta bestetik... erantzun gisa idatzitako apologia, gramatika, hiztegi, zuzenbide historikoaz etab. ari diren idazlanek, amore eman ordez defentsa prestatu nahi zela adierazten digute, hizkuntzan —foruen gerizan— historian baino sendoago oinarrituz (50).

J. A. MOGEL-ek (1745-1804) *Diccionario Geográfico*-aren asmoei igarrita, artean Bizkaiko Diputazioa ixilik, erantzute lanari —argitaratzeko kontuan— ekin zion (51): batetik *Apologia de la Lengua Bascuence* eta Vargas Ponce-ri Gutunak idatziz, bestetik jo Adiskideen Batzarrera (RSBAP) eta *Alegiak* eta *Etimologiak* aurkeztu eta bazkide eginez (52).

(47) *Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaus* (J. GARATE, aip. obr., 210. or.).

(48) A. MAÑARICUA *Historiografía de Vizcaya*. J. DE ARALAR *Los adversarios de la libertad vasca* (1794-1829), 67, 114. or. A. TOVAR *Mitología e ideología...* 121. or. “...un verdadero plan de gobierno (...) la lucha de teorías sobre la lengua vasca encubría en realidad cuestiones políticas y administrativas”. L. MITXELENA “Mitología e ideología...” Muga 10, 1980.

(49) L. MICHELENA “Las lenguas españolas y el periodismo escrito” in *Lenguaje y periodismo*, Fundac. March. Madrid, 42. or.

(50) L. MITXELENA, “Mitología e ideología...” Muga, 10, 1980: “Los apologistas, descañados por lo común en el campo de la historia, defienden en materia de lingüística histórica, opiniones que hoy en día nos parecen en buena parte razonables o, al menos, nos lo parecerían traducidas al lenguaje actual”.

(51) Orain urte batzu, “B. A. Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera* 1982, 2.t. 267.or artikuluan esana zuzentzeko aukera dut. J. A. Mogelek, erlijio idazlanek bestelakoak argitaratzeko asmorik ez zuela aditzera ematen nuen. Zertako idatz, ordea, hain gartsuki euskararen alde “para servir a la Patria y a la Nación” (*Versiones Vascongadas*) ez bada?

(52) Archivo de la Diputación de Alava (Fondo Prestamero) Juntas Generales de la R. S. B. (eskuzko kopia). Bilbao julio de 1.802. “Se Juntaron los Amigos Murga, Consiliario

Familiatik zetorkion ilustrazio ondareari jarraituz (aita eta anaia bazkideak, orduko hilak, eredu gisa goraiatuak izan ziren) (53) bera ere hiztegi gintzan aritua izaki (54), erakunde prestijiosuan (55) berandu sartu

de Vizcaya Presidente, Ortes, Mazarredo, Azedo, Herran, Torre Alta, Corcuera, Romarate de numero, el Excmo. Sr. D. Josef Domingo de Mazarredo, veterano, e yo el Secretario nombrado para estas Juntas por ausencia de los Amigos Secretario y Vicesecretario (...) Habiendo presentado D. Juan Antonio Moguel un Ensayo manuscrito de Poesia Bascongada en varias fábulas traducidas del Castellano y diferentes versiones Bascongadas impresas de algunas arengas de Autores latinos se acordó darle por su aplicación y zelo manifestándole el sentimiento que tiene la sociedad de que el estado de sus fondos no le permita contribuir a la impresión de dicho Ensayo y le nombró Socio Literato". Juntas Generales celebradas en Vizcaya por Julio de 1.803 (día 28 por la mañana). "Se juntaron los amigos Murga Consiliario de Vizcaya y Presidente por ausencia del Director Ortes, Ugarte, Azedo, Porcel, Echaz, La Torre Alta, Zabala, Villafranca, Lili Menor, Veterano de Gracia, Letona e yo el Secretario nombrado para estas Juntas por ausencia del Secretario y Vicesecretario y amas el Amigo Gaytan Supernumerario a quien habilitó esta Junta para que asistiese en clase de Socio de Número. "Se presentó (...) un Cuaderno Intitulado reflexiones sobre la antigüedad del Bascuence y uso de las Ethimologias Bascongadas por el Socio Literato D. Juan Antonio Moguel, y acordó la Junta dar Comisión a los Amigos Echaz y Murga para su reconocimiento".

Honela, bada, egiaztatzen da zegoen ustea. Baina zertako hain berandu sartu? Samaniero moduko denborak joanak ote zirelako edo? Ikus L. F. LARRAÑAGA, "Actitud del Clero Vasco frente a los empeños renovadores de la R. S. B. A. P.", B. R. S. B. A. P. 1969. Alegiak, gipuzkeratuta, Donostian argitara eman zituen Bizenta Mogelek *Ipui Onac* izenpean. Prestamero Artxiboko Mogelen gutunetatik (SAN CRISTÓBAL-ek eman zuen berri, *Iker-1*, 130.or.), soma daitekeenez eta "B. A. Mogelen biziak eta lanaz zenbait argibide" **Euskera** 27, 1982, nire artikuluan frogatzen saiatu naizenez.

(53) A. D. A. (Fondo Prestamero) *Conclusiones de Medicina dedicadas a la R. S. B. por el autor Juan Ignacio de Moguel y Urquiza (1.773 - 2 - 7) Relación y observaciones sobre un empiema mal curado (1.774, 6.3.1.15) Narros-i gutun batekin*. J. I. Moguel (aita) Ramon M.^a de Muniberen osagile izan zen eta honen eritasunaz ari da. *Observaciones medico-practicas de la verbena (sugue bedarra) con el método de usarla dirigidas a la R. S. B. A. P.* (J. I. Mogel aita) 1.768. L.3.T.15). *Presentación de unas conclusiones anatómicas dedicadas a la R. S. Por Juan Ignacio Moguel Urquiza, profesor de la Universidad de Zaragoza.* (1.773-3-20). J. I. Moguel-en gutun baten aurkezpena (ganadu izurriteaz, 1.775-4-8), beste baten irakurketa (1775-6-30). *Aviso a la R. S. B. A. P. de un moderno descubrimiento en Vizcaya en gran beneficio de la agricultura, sin perjuicio de las cosechas regulares ni dispendio particular alguno (1775-12-1)*.

(54) A. D. Alava (Fondo Prestamero). Azpitarte-ren dokumentu batetan, ikus E. KNÖRR. "Some new documents concerning Azpitarte's Dictionary"; *Iker-1*. 1981, Euskaltzaindia, 111.or.

J. A. MOGEL: *Cristaubaren Icasbidea* eskuizkr. (Aranzazu). Prólogo al lector: "Sólo un pensamiento me consuela, y es que la sociedad bascongada, que se emplea con tanto honor, y utilidad en infinitos asuntos, no tendrá a mengua el confundir a estos enemigos de su País, sacando à luz un Diccionario copioso, y a poder ser tridialéctico".

(55) Hervas (TOVAR, *Mitol. e Ideol.*), Erro, Sorreguieta eta Astarloa ere, dirudienez, Batzarreko ziren. Kalahorra-ko Apezpiku Aguiriano-k eta Llorente kanoniguak (!) ere sartzeko eskatu zuten (Fondo Prestam.). Bidenabar, eskarazko neurtitz ezezagunak ere badira. Adib., J. Campos-ek Hervas-i gutun batetan: "El Sr. Iturriaga, director del Colegio de Vergara, amigo mío, también es uno de los literatos de la Sociedad Bascongada y ha acreditado en varias poesías vascongadas una inteligencia grande en este idioma".

arren, euskara indartu nahiean eta Maisu Juan gehiegi ikusita edo, horien modukoentzat idazten du *Peru Abarca*, Josef de Murga Bizkaiko Aholkulari eta Diputatu Nagusiari idazlana zuzen edo alda dezala eskatuz. Bidenabar, eta nire ustez, *P. Abarca*-n agertzen den hiritar bizimoduaren kritikak nekazaritza jasotzeko egin ziren ahaleginekin zerikusia du, pre-romantikoen ideien oihartzuna ukatu gabe (56).

Mogelen lanak krisialdiko emaitz dirudi: mende bukaeran Aintzina-ko Erregimena, erlijioa, are Mogeldarren familia eta ekonomia, kolpatuta (57), foruak eta euskara, eraso eta erdeinuz, estatusunean, nazio-hizkuntzaren aldeko indarrek, europar nazionalismoari esker (beste zenbait idazleri bezala) ats eman bide zioten idazteko —tonu gogor eta radikal batez idatzi ere, gainera—, gramatika eta hiztegi gintzan aritzeko eta euskara idatziz lantzeko, baita erlijio liburuetan ere.

Mogel-en predikua, erlijio liburu argitaratuak eta alegiak alde batera utzita, etxeko herrigizon eskolatupei eta buruz ondorengoei zuzendua da (56), eta euskaldun dongeak (59) eta euskararen guttiespena salatzen defentsara edo protestara alda daiteke (60). Bestalde, ezaguna denez, lege zaharreko zen eta, gainera, Frantziako Iraultza ondoan dotrina berrien sarrera galerazi nahian, Inkisidoretzan, jarduna (61).

(56) 1796. ean, Godoy-ren aginduz, *Prospecto de un semanario de Agricultura, Artes y Oficios dirigido a los Parrocos* zabaltzen da, non elizgizon protestanteak Europan egina eredutzat hartuz, nekazariak ilustratzeko zereginaz ardura ditezela nahi bait da. “No solo mejoraréis las fortunas de vuestros feligreses, sino también las costumbres” diotse. 1791.ean, Madrid-en, Antonio de SAN MARTÍN y BURGOA apaiz eta Bergarako Mintegiaren eraikitzaileetako batek *El Labrador Bascongado, o antiguo agricultor español* argitaratu zuen.

(57) Aita-anaia medikuak 1783. eta 1785.ean hil ziren eta bion soldata gabe gelditu zen familia. Mendeko azken urteetan J. A. Mogelen soro eta eliz errentak, beste apaizki-deenak bezala, gero eta beheerago, patroiz eta urriarenak gora zihoazen bitartean. “No testó por no tener de qué” dago idatzia eliz-liburuetan.

(58) *P. Abarca* “a los muy cultos”. *Alegiak* “A la Juventud Bascongada” *Apología*, hemengo eta kanpoko jakitunei, orobat V. Ponce-ri gutunak... *La H. y Geogr. de España*-ren kopia bat igortzen dio Corral-i eta *P. Abarca*-rena Murga, itxura baten (Vargas-ek Mogeli, 1802-7-9), Pereyra *Diccionario Geográfico*-ko partaide eta korregidorearekin konpontzen ez zenari.

(59) Maiz mintzo da “euskdun chár” horiez *P. Abarca* (1. ediz.) 196, 197, 201.or.

(60) Adibidez, *Apología*-n euskararen zapalketa salatzean edo harako Peru-ren erasian: “galdu gaitube arrotz ta erdaldunac ta chimino eguinic jarraitu gura deutsegu aen asmuei”, 95. or.

(61) Arch. Hist. Nacional. Inquisición. Leg. 4429, Núm. 13. Bilbao. Año de 1792 *Expediente sobre las Gacetas de Francia, que dimana del Expediente de Marquina, en que se trata de las Gazetas de la Libertad, y la Ygualdad, del Mercurio...* J. A. Mogelek aldizkari horiek eta bestek Bizkaian (eta Markinan ere) duten zabalpena salatzen du. Ondorioz, beste informazio batzu ere tarteko direla, D. Josef de Murga, D. Guillermo Duabon, D. Pedro Ardanas y Companía, D. Domingo de Lesca eta D. Bertran Dobat Marques de la Colonilla-k gazeta horiek eskuratzen dituztela jakiten da. Josef de Murga, Mogelen herritarra, “frantses-tatu” bide zen garai hartan. Urte bete geroago, Mogelek Inkisizioan sartzeko eskabidea

Jakina, haren idazlanetan ez da azaltzen ez Euskalerrria edo Euskalerrriari sozialki bateratzeko asmorik ez aginte konturik eta nazionalismoaren etxaurrean gelditzen da. Hala ere, Mogelek garbitasun bat, eraberri-tze edo, nahi bada, era zahartze bat, iragan denborako ‘jatoritasunera’ (62) itzultze bat aldarrikatzen du bizimoduan, ohituretan, nola hizkuntzan. XIX. mende osoan karlismoa eta, geroago, baita nazionalismo tradizio-nalista ere, nolabait deitzeko, Mogelez baliatu ziren betiko Euskalerrriaren eredu, are santu hotseko (63) eginez. Nolanahi ere, kontutan izanik *Peru Abarca, Apologia* eta abar argitaragabe gelditu zirela (nahiz eta lehendabi-zikoaren kopia franko ibili) euskal nazioaren gainbeheraren erantzunkizuna, karlismoari okerreko bide erizten diotenez, Markinako abadeari edo honen modukoei bezainbeste edo gehiago beste norbaitzuei, Bilboko merkatarri nagusiei, adibidez, eskatu beharko diete.

Mogel, euskal mito edo sinbolo politiko-kulturalak (kantabrismoa, Tubalen Espainiara etorrera, erromatarrengandiko independentzia eta ituna, monoteismoa etab.) jaso eta fuerista baina euskalazale ez direnen aurka ateratzen da, zeren eta euskara, bere aintzinasunean aldatu gabe gordea, ez bait da soilik eskubide historiko batzuen frogabide nagusia, euskaldunen jaio-lur edo jaioterriko hizkuntza (“idioma patrio”) ere bada (64), hizkuntzaren izen bera daramala, gazteleraz ere, sorterriak (65). Eta, beraz, (Mogel razionalista praktikoa genuen) elizgizon eta esko-latuen zeregina zatekeen —aberatsa eta landua izateko gai bait da— euska-

egiten du. (J. GARATE *Cinco Cartas inéditas de D. J. A. de Mogel*). Kontu honetan Humboldt bestelakoa zen, Inkisizioaren kontrakoa, alegia.

(62) P. I. “euscal dunac bagara benetan, vici biardogu gueure asabac eracatsi deuscu-bezan ecandubacaz” Biziketan, jantzietan eta abar, urico moda barrien bitxitasunaren ordez aintzinakoen lautasuna predikatzen du. (*Ipui Onac*-en Peñafloredarena goresten da).

(63) E. M. AZKUE “Mogel eta Tsaraka” (*Parnasorako bidea*, 1896, 80.or.) bertsoetan “Santua lakoa”. *Vida edificante de la sierva de Jesus Sor Maria Garcia (...) Ubilla (...) escrita por el párroco de Sta. Maria de Jemein D. Antonio Moguel, apellidado “El Santo”*. 1927. Impr. Aldecoa. Burgos J. A. OAR-ARTETA-ren *Miren'en senargeya-n*, Bermeo 1936, santu hotsean hil zela edo antzeko zerbait esaten da.

(64) “Patria” sorterri edo jaioterri hitzaz euskaratua (conf. Azkue, *Diccion.*, “errikoi”, patriota, P. Abarca-tik hartuta), Euskalerrri edo honen zatiren bati buruz mintzatzean erabiltzen du Mogelek. Berdintsu Astarloak, *Apol.*, 337 “...atribuir la gloria de la invención al Señorío de Vizcaya, mi patria, que es una parte del país Bascongado, sino al Cuerpo todo de la nación Bascongada”. Hala ere, Mogel-ek, “nación” Espainiaz mintzatzean erabil dezake (Llorentek “nuestra patria comun” erabiliko luke). Zehaztugabeak dira hitzok, beraz, “nación” eta “nacional”, batik bat. Nolanahi ere, Mogelentzat euskara “idioma patrio”, “nuestra lengua”, “nuestro idioma nacional” etab. da eta gaizki esaka dabilena, nahiz eta fuerozalea izan, Egiategik esango zukeenez (*Filosofo Huskaldunaren ekheia*, Hitzaurria, Lekukoak), “herriari dago traidore”.

(65) “El País Bascuence” (*La Historia y Geografía*, Gaubeca, Bermeo 1936 23.or) edo “País del Bascuence”, “El Bascuence” (P. Abarc. 39. or.).

ra garbitzea (66), forma jatorrak batzea eta apaintzea, hau da, diglosia lotsagarriari aurre eginez idazteko ereduak (hiru euskalkietan) finkatzea. Mogelen bizkaierazkoa, jakina denez, S. Aranak Bonaparteren eskutik jaso eta eredu jarri zuen (67).

Peru Abarca eta *Alegiak* obra literario neoklasikoak (68) ditugu irakasteko asmoaren eta genero edo forma literarioen aldetik Adibidez, herri ipuinak gaitzetsiz alegi edo ipui "onak" idazten ditu. Hala ere, P. Abarca-ko herri-kanta, bertso, atsotitz, etab.-en biltze (69) zein hirietako bizimoduaren kritikagatik (70), badirudi Humboldt-en bitartez edo, prerromantizismoaren ikutua sendi dela eta hau ez dateke harrigarri, Astarloa bezala, gurutzebidetako gizon bait genuen Mogel.

"PEDRO PABLO ASTARLOA (1752-1806), de Durango en Biscaye, était un de ces esprits ambigus qu'on rencontre souvent au carrefour de cultures diverses et au moment des grands renversements. Fort intelligent, pas trop cultivé (il semble que, en fait de langues, il ne connaissait, en dehors du basque et de l'espagnol, que le latin et le français), épris de raison et de système, Astarloa, élevé sans doute dans la tradition espagnole, avait lu pas mal d'ouvrages publiés ailleurs. Il était parvenu tout en mettant à profit des idées d'origine diverse, à bâtir un système personnel qui visait à expliquer la langue basque tout entière depuis les sons, dont

(66) "...quendu biar dira erderati premina бага iraatsi jacozan verbaac, batu eusquera icken baztertu ta zoconduta dagozanac, ta imini biar da garbituta, zan leguez anchina erdaldunacaz artu-emonic etzan demoretan" (*P. Ab.*, Dialogo entre dos amigos eclesiasticos). Hala ikusiko da, besteak beste, "noraño elduten dan bere oparotasuna berbeetan" Horretarako, "Atera ugari liburu eusquerazcuac", hobeto esan, "liburu eusquera garbicuac" (199-200. or.). Hau da praktikan erakutsi nahi duena, *P. Ab.* edo *Versiones... o Demonstracion Práctica de la pureza, fecundidad y elocuencias del idioma Bascence...* idatziz. Gaineña, "Eusquereac ez dau inoren biarric edocein gauza esateco", Humboldt-ek ere hala uste zuelarik.

(67) L. MITXELENA "Normalización de la forma escrita de una lengua". Revista de Occidente, 1982. Madrid.

(68) J. KORTAZAR. "¿Fábulas inéditas de J. A. Mogel?" F. L. V. 35-36, 1980, "eta Mogel eta bere garaia", F. L. V., 1982.

(69) Bertsolaritzak, Mogelentzat, euskaldunen berezitasuna erakusten du: "ningún rústico castellano es capaz de versear arregladamente". Bera dugu lehena, agian, alde honetatik eta beste batzuetatik (neurkera, kantua, trinkotasuna) duen balioa jasotzen (ikus Zamakola). Herriaren emaitz den orok (kanta zahar eta berri, esaera zahar -zenbait Oiherantegandik jasoak- berez balio du.

(70) *P. A.* 189 or. "Caleric cale ibillita ezta icasten barriquetia, alperreriya ta dongaro esatia ezpada. Baso onetan ta baserrijetan dauquee guizonic jaquitunenac cer asco esaminau, edo zuc esaten dozun leguez, cer aztertu ta zer icasi gauza ascotaraco". *Ipui Onac*, Hitzaur "Au bai dala vicitza categabe, ta erri andietaco lotutasun, edo labañqueriaric ez duena!".

il a donné des descriptions exactes, jusqu'à la phrase". (L. Mitxelena) (71).

Ez dut Astarloaren sistema aztertzeko ez errakuntzez aritzeko asmorik, oro har kontu aski ezagunak bait dira.

Polemikaren tonua, prentsa eta liburu bidezko zabalpena (71 bis) eta azpiko asmoek eztabaida gailurreratu dela aditzera ematen digute. Jakina, Traggia (72), Martinez Marina, J. A. Conde, Llorente, eta abar Estatua-ren babespean ari dira eta Astarloa, dirudienez, lagunek bultz eginik baina bere kabuz. Madrid-en, noski, espainiarrei zuzentzean, adibidez *Reflexiones Filosóficas*-en (Madrid, Cano, 1804), espainiarzaletasuna aitatu beharrez, Mogelez bestelako jarduna darabil: "lengua de vuestra misma nación" "malos españoles" (Mogelentzat gaztelera, "lengua extraña"). Hervas-en *Catalogoak* eta, kanpoan, Humboldt-en gerizak sendotu zuten Astarloa, zein Europa guztiak bere obra miretsiko zuelakoan bait zegoen. *Plan de Lenguas o Gramática Bascongada en el Dialecto Bizcaino* (RIEV 26, 1935) Erro-ri "esker" galdu arren, Bizkaiko Diputazioak, 1820.ean behintzat saiatu zelarik, azkenez 1883.ean eman zuen argitara *Discursos Filosóficos* (73).

(71) "Guillaume de Humboldt et la langue basque" *Lingua e stile* VIII 1973, eta *Lengua e Historia*. Paraninjo, Madrid, 1985, 128. or.

(71 bis) J. A. MOGUEL, J. M. Murga-ri gutuna (J. GÁRATE, *Ensayos Euskarianos*, 222. or.). TOVAR, *Mitología e ideología*, 133. or. "el tono de estos Académicos, que yo creo actuaban instigados por el Gobierno de Godoy era duro, y así repite Conde aquello de Mariana "lenguaje grosero y bárbaro". Astarloaren hilburukoan azaltzen denez, Apologiaren 300 ale saldu gabe gelditu arren, Nueva España lagundu nahi diote.

(72) A. TOVAR, *Mitología e ideología de la lengua vasca*, 101-6. or., Alianza 1980. L. MITXELENA, "Mitología e ideología de la lengua vasca". *Muga*, 10, oct. 1980.

(73) Bizkaiko Eleiz - Arkibua. (Derio). Parroquia Sta. M.^a de Jemein. Papeles Varios. (Fray Pedro Astarloak bere iloba Ignacio Luis de Astarloa, Markinako apaizari eskutitza). Bilbao y febrero 1820. Querido Ignacio. Ya te tengo avisado como Erro había escrito, que con tal que el Señorío le pidiese las obras del difunto Paulo y fuese por intervención mía las entregaría. El Martes escribieron los Diputados a Erro asignando en Barcelona persona a quien entregase, y dando orden a esta persona que dirigiese el paquete a Zaragoza a un sugeto de confianza, en caso que no hubiese conductor que rectamente trajese aquí. También he escrito yo a Erro suplicándole que embie o que entregue al sugeto asignado por el Señorío los escritos. Los Diputados actuales están muy empeñados en que salgan a luz las obras, y no dudo que los sucesores y quantos compongan la Diputación serán del mismo sentir, y no se dejara de tocar en las proximas juntas si llegan antes los manuscritos. Por las conversaciones que tube con el difunto Pablo, por la idea que tengo formada segun lo que me escribía desde Madrid, estoy persuadido que la obra va a asombrar y pasmar a todo Europa y abrir un nuevo camino para las ciencias, y para la historia. La Academia de Londres insta su edición; Humbolt no sosiega en sus instancias, el Ynstituto nacional de Paris la Academia de los Países bajos unidos, ha llebado la Apologia y manifiesta deseos de la publicación de los Discursos Filosoficos..."

Baina Errok Frantziara ihes egin zuen Konstituzioaren aldekoak nagusitu ziren urte horretan bertan. 1808.ean, Prestamero-ri idatzitako gutun batetan (A. D. A. Fondo Presta-

Idazlan honetan, silaben kontaktaz diharduela, bertsoen neurkeraz arduratzen da, nahiz eta labur, eta, dirudienez, bereak ditu zenbait zortzi-ko (74), are Peñafloidaren omenez.

Apología de la Lengua Bascongada-k (Madrid, Geron. Ortega, 1803), euskara landugabe eta basatia ez ezik berri xamarra delako aipua desegin nahian, haren perfekzio edo betekunde bidez aintzinasuna frogatzea du helburu.

1809.ean LABORDE frantses bidaiaria (75), bestek euskaldunei buruz esanak bilduz, hauen izakera, ohitura, usadio, hizkuntza, libertatezaletasun, kantabrismoaren mito, aintzineko izakera bortitz zibilizazioak bigunduak etab. ari da.

WORDSWORTH ingeles poeta erromantikoa ere, Laborde irakurri ondoren, 1910.ean idatzi eta 1815.ean argitara eman zituen hiru sonetotan euskaldunen ritua, ohitura, lautasun, noblezia, sendotasunaz mintzo da, libertate galduak lanaren poderioz berreskuratzeko dei eginez (76). Wordsworth, nahiz eta hasiera batetan frantziar iraultzak liluratu, konterbadorea zen, Humboldt bezala, eta Napoleonen inperialismo eta arrazakeriaren kontra eta lehenagoko denboren itzuliaren alde (“Go back to antique ages”) ari da. Poema horiekin batera espainiarren aldeko beste zenbait ere bada. Izan ere Independentzia-gerrak espainiar nazionalismoa sendotu egin zuen. Hona hemen poemok:

mero) hau dio *Mundo Primitivo* eta *Discursos Filosóficos*-i buruz: “Espero que estas dos obras llamen sobre nuestro pays la atención a la Europa literaria recibiendo entre las verdades historicas mas sancionadas la primacia de nuestro idioma en origen y perfección”. Diario de Madrid, 28-9-1803. ekoan, Archéófilo-k zinaturiko Apologiaren erreseina kritikoa “no dudo llegará a formar época en los fastos de nuestra literatura, y que acaso dará motivo (...) á conjeturas muy racionales, no solo sobre el origen y formación de las lenguas, sino también sobre la antigua disposición del orbe terraqueo (...) por medio del cotejo analítico de unos idiomas con otros”.

(74) J. DE VRIZAR, “Peñafloida, Crillón y Astarloa”, B. R. S. V. A. P. 1949 1782.ean (Peñafloidaz) “Onec deuscu Eusquera/Auspastuba jaso”.

D. P. P. A. Versos a la proclamación de N.º Augusto Monarca D. Carlos IV (1789) (*Discursos Filosof.*, 541.ean beste aldaki bat. Foruen etorkizunaren ardura erakusten du, “Bizkai guraso sendo/Martitz emalliak/Erroma arrotubari/makurtu baguiak” ez zirela garaiak izan gogoratuaz.

Guizon gustijen Batzaarra (“Congreso de todas las naciones”, Astarloak itzuli bezala, *Discursos*, 540. or.

“*Markinako pelotariena*” deituko nukeena. Plan de Lenguas (Extracto) (HUMBOLDT, Diario del viaje vasco.). Eta beste (*Reflexiones filosóficas*, 44. or. zorcico bascongado).

(75) Alexandro LABORDE *Itinéraire descriptif de l'Espagne, et tableau élémentaire des différentes branches de l'administration et de l'industrie de ce royaume*. Paris 1808. T. II. “La Biscaye et ses cantons”.

(76) WORDSWORTH *Poetical Works*. Th. Hutchinson. Oxford University Press, 253. or. Lehen aldiz in *The Poetical Works of W. Wordsworth*, Longman, 1827, 5 vol. Euskarazko itzulpena, C. ECHEGARAY, Euskal Erria 1881, 7, 164.or.

In due observance of an ancient rite,
 The rude Biscayans, when their children lie
 Dead in the sinless time of infancy,
 Attire the peaceful corse in vestments white;
 And, in like sign of cloudless triumph bright,
 They bind the unoffending creature's brows
 With happy garlands of the pure white rose:
 Then do a festal company unite
 In choral song; and, while the uplifted cross
 Of Jesus goes before, the child is borne
 Uncovered to his grave: 'tis closed, —her loss
 The Mother then mourns, as she needs must mourn;
 But soon, through Christian faith, is grief subdued:
 And joy returns, to brighten fortitude.

FEELINGS OF A NOBLE BISCAYAN AT ONE OF THOSE FUNERALS

Yet, yet, Biscayans! we must meet our Foes
 With firmer soul, yet labour to regain
 Our ancient freedom else 'twere worse than vain
 To gather round the bier these festal shows.
 A garland fashioned of the pure white rose
 Becomes not one whose father is a slave:
 Oh, bear the infant covered to his grave!
 These venerable mountains now enclose
 A people sunk in apathy and fear.
 If this endure, farewell, for us, all good!
 The awful light of heavenly innocence
 Will fail to illuminate the infant's bier;
 And guilt and shame, from which is no defence,
 Descend on all that issues from our blood.

THE OAK OF GUERNICA SUPPOSED ADDRESS TO THE SAME. 1810

Oak of Guernica! Tree of holier power
 Than that which in Dodona did enshrine
 (So faith too fondly deemed) a voice divine
 Heard from the depths of its aerial bower—
 How canst thou flourish at this blighting hour?
 What hope, what joy can sunshine bring to thee,
 Or the soft breezes from the Atlantic sea,

The dews of morn, or April's tender shower?
 Stroke merciful and welcome would that be
 which should extend thy branches on the ground,
 If never more within their shady round
 Those lofty-minded Lawgivers shall meet,
 Peasant and lord, in their appointed seat,
 Guardians of Biscay's ancient liberty.

Vienako Kongresuak (1814-1815), ezaguna denez, lege zaharrekoen joera indartu zuen. Bilboko San Frantzisko komentuan, Abandoko "elextatian", eta aspaldiko tradizio bati jarraituz, BIZENTA A. MOGEL eta J. P. ULIBARRI-k, 1819-1832 bitartean, urtero argitaratu ohi zituzten ("trienio constitucional" deitu denborakoak ez dira agertzen J. Urquijoren bilduman) *Gavoneco Cantac* edo *Osasteac* edo *Bertso Neurtuac* dokumentu interesgarriak ditugu, hizkuntza aldetik ez ezik historia aldetik ere (77).

Bertsotan datorren propaganda hau, joera politiko ez ageriko baina jakinekoa, bizkaitar nekazaleei zuzentzen zaie, beren interesak defendatzeko eta ohiturak garbitzeko deadar eginez: "billatu ondasunac / lurra-
 ren barruban", "cenbat calte deuscuben / eguin lumadunac", "uritarrac badabilz / artu emonetan / achurlari garbijac / ez sartu orretan" (Hau idatzi zuenaren senarra merkataria zen).

Euskal legeak eta euskara gordetzeko kezka azaltzen da, behin eta berriz, baina erlijio eta xenofobia kutsua darie: "euskera donzua" (gaztelera, aldiz, "hizketa zantarra"), "Bizcaico banderia / zan leen lamburuba / gaur esaten jacona Curutze Santuba", "Vizcaijan ez da biar erbesteco legerie", "lotzagarrizco oitura dongac erbestetuteco" eta abar.

Joera bereko eta, lege zaharrekoen berrindartzearen ondorioz, Euskalerriko zenbait tokitan gerrillen agerpenaren lekuko ditugu 1823.ean idatziriko agitzio bertso batzu, C. A. F. MAHN-ek bere *Denkmaeler der Baskischen Sprache*, Berlin, 1857, liburuan bilduak:

— *Marquina, Xemein ta Echevarric, irurac bat agur deusé egiten Constitucinoeco Damiari.*

— *Constitucinoeco Damiaren asmuac Zortzicuan.*

(77) Gipuzkoako Diputazioko Biblioteka. Fondo Julio Urquijo.

Badaude aintzinagokoak ere: *Villancicos que se han de cantar en la Solemne Misa del Sagrado nacimiento de nuestro Señor... en el real e imperial convento de nuestro Padre S. Francisco*. Zortziko batzuek Markinako Iturrikoen itxura dute. Eta *Letras de los villancicos en romance, y basquenze, que se han de cantar en la iglesia parroquial, y matriz del señor Santiago de esta noble villa de Bilbao en los solemnes Mayines del Sagrado Nacimiento de nuestro Señor Jesu-Christo, este año de 1794*. Por Simon de Larumbe... "Fraile, ta Abadiac / Besteecaz batera / Jagui dira pozarren / Armac artutera" "Jaquinic dala Guerra / Jaunac nai dabena". Ikus A. IRIGOYEN "Bilbo eta euskara". *Euskara* 22 (1977). X. ALTZIBAR "Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide". *Euskera* 22 (1982), 487-494.or.

— *Ama Doncellari zortzicua*. Azken hau “Bilbon, Jose Basozabalen Silluteguiyan 1823. urtian”.

Bertsootan “Catigarijo gogor / iru urtecu”-ren amaiera ospatzen da eta lege barrikoen nagusitasunak ekarritako “abade guichi eta euren guisacuac”, esklaustrazioa, “quinta ta milicijac” “pantete ta registro” eta b.en aurka armetara deitzen. Jartzailearentzat (agian Juan Jose MOGEL apaiza) “Españolen icenic / ez jaque emoten / Bandera oquerretan / diranei sartuten”.

Elizgizonak, baina, ez ziren denak alderdi bateko. Ezagutzen dut, Borja Aginagalde, Zabala-ren Etxeko Artxibo-zuzendariari esker, konstituzioaren agintzapean, aldeko zen baten sermoia. “Fedegatic, ta Provincia edo Erreinu gustia trastornatu?” behar ote den galdetzen du, eta hori nahi omen zutenei erasten die: “¿Certan dijoa gure Constitucio jaquin-sua religioaren Contra?” edo “ta amarrenac guchituagatic, Elizaco ministroetan, ta oyen numero, ta errentetan cerbait mudanza eguiñagatic ¿norc ez daqui ez dala ori fedeco gauza?”. Eta azken aholku hau ematen du: “eguin aleguina bere defencaraco, modu onetan izaten guerala onac, justuac, prestuac, eta humillac aguintarientzat mundu onetan, guero izan gaiten betico ceruan: Amen” (Archivo de la Casa de Zabala. S. Sebastián).

1818.ean / aol Auch-en argitaratutako J. A. ZAMAKOLA-ren *Historia de las Naciones Bascas*-en (78 a) agertzen diren herri-subiranotasun

(78 a) Obra honen historiarako bada Bizkaiko Diputazioko Artxiboan, Sala Villarias-en zeuden baina ezezagun eta oraino katalogatugabeak diren paper batzu: “Documentos relativos à la historia general de Vizcaya è indice de la obra”. 1814.eko Abenduaren 2an Auch-etik Jaurerriko Diputatu Nagusiei zuzendu eta Pedro Yraburu-ri bidalitako eskutitz izenpetugabe baina Zamakola berarena dirudien honetan haren idazkien berri ematen da, hots, Madrilen bukatzen ari zen *Historia general de Bizkaya, y confederación de los países Bascos con el imperio de Occidente*, eta Frantziara ihes egin eta zuen helbururako nahi adina berri bildu ondoan (“para justificar la libertad de los Bascos antiguos, y la independencia que han conservado Bizcaya y las otras dos provincias hasta nuestros días, vajo el gobierno protecticio de los Reyes de Navarra y Castilla”) idatzitako *Apuntaciones para la historia general de Bizkaya, y de los países Bascongados de la Cantabria y el Pirineo*. Idazlantxo honen argitaratze gastuak hornitzeko eskatzen dio Yraburu horri, aditzera emanez “que el autor no se mezcla en las materias políticas que oi agitan a la España, sino puramente en las noticias que interesan a Bizkaya y que no fueron jamas savidas por el escritor del Escudo, por el Padre Henao, por otro alguno de nuestro país”. Argitalpenaren egokiera azpimarkatu nahi du: “... si se apresta la publicacion de esta obrita, asegura el autor a V YII^a que la opinion de la Europa fijará la existencia política de Bizkaya para lo venidero con el uso de su constitucion, y de las antiguas leyes y libertades...”. Zeren eta bestela “...Bizkaya carecerá del unico escudo que pueda resguardarle en lo sucesivo del poder y de la ambicion de otros estados”. Ondoren, arkibidea dator eta, adibidez, besteak beste, honatx erakusburu bat: “Independencia y libertad de estas tres provincias con respecto a sus señores y a los Reyes sus protectores”. Euskarari buruzko hauek ere hor ditugu: “Lengua Bascongada general en España, en la Galia y aun en Italia”, “Hierros que han cometido [los historiadores] por la ignorancia del bascuence”, “Necesidad de estudiar el Bascuence para saber la historia del mundo primitivo”.

eta berdintasunean finkaturiko gobernuera, aintzinako ereduak, jatorrizko denboren aldean garaiko beheraldia, etnia batasuna, lurraldea, hizkuntzaren gorapamena etab. aintzat hartu eta aztertu eta gero, ondorio honetara iristen da R. Basurto Larrañaga irakaslea:

“En la obra de Zamacola encontramos todos los componentes ideológicos que configuran el pensamiento nacionalista. Zamacola no es historiador. Zamacola escribe desde el presente y trata de avalar sus opiniones políticas proyectándolas al pasado, utilizando la historia”.

“...desde el punto de vista historiográfico vasco, constituye un hito en la medida en que constituye la primera historia nacional vasca concebida desde unos supuestos que se podrían considerar nacionalistas, ni más ni menos que los que se estaban haciendo en otros países de Europa por aquellas fechas” (78 bis).

Euskarari buruz, *H.^a de las Naciones Bascas*-ko “Lengua de los Bizcaynos” kapituluaren jardun ondoren, honen laburpen den 12 orrialdetako liburuxka bat ere argitara eman zuen Bilbon, 1922.ean: *Perfecciones analíticas de la lengua bascongada. A imitación del sistema adoptado por el célebre idiólogista D. Pablo Pedro de Astarloa en sus admirables Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua*. Por D.J.A. de Z. año de 1822. En Bilbao. En la imprenta de la Casa de Misericordia, por Felipe Morales y Compañía, año de 1822.

Zamakola “idiologista” politikoa bat dugu —ez Astarloa bezala, hizkuntzalari bat—, eta Court de Gebelin-en eritzia jasotzen du, hots, hizkuntza batek herri baten nortasun-agiri eta historiaren erakusle izan behar duelakoa (78 c). Adibidez, euskarari isladatzen dira, Indusikoaren ustez, aldi igaroko euskal errepublika eta federaziopekoen edo lehendabiziko gizakien bertuteak, ilustrazioak ekarritako gaitzen aldean eredu direnak.

(78 b) “Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del s. XIX: J. A. de Zamacola”, R.I.E.V., 1986.

(78 bis) “El análisis de la lengua, dice Court de Gebelin, Dicc. etim. de la lengua lat., fol. 37, no solo sirve para entender los monumentos de la antigüedad sino también para remontarnos a los tiempos desconocidos de la historia del espíritu humano y de los habitantes de la edad de la naturaleza. Por el conjunto de las voces de una lengua antigua, se debe saber el genio de sus pueblos primitivos, la época de sus primeras sociedades, de sus instituciones y ordenanzas, la extensión de sus conocimientos, su modo de vivir, sus pasiones dominantes, su carácter, sus costumbres, la naturaleza de su terreno; la lengua de un pueblo debe ser su código, su historia, sus ciencias y artes, todo debe hallarse en ellos porque el hombre no está organizado para pensar ni saber” (*H.^a de las Naciones Bascas*. Edic. Amigos del Libro Vasco, t. II. 133. or.). “...se puede casi asegurar que la lengua bascongada ella sola había sido en otros tiempos un código religioso y civil donde se aprendían las obligaciones que debían saber los habitantes para vivir en sociedad” (*Perfecciones analíticas...*). Cfr. Astarloa, *Apología*, 308. or.; Erro, *El mundo primitivo*, 1815, XIX. or.

“In der Sprache jedes Volkes finden wir die Geschichte desselben” idatzi zion HAMMAN prerromantikoa G. I. Lindner-ri (1759-8-9. eko gut. Ziesemer, Wiesbaden, KSS).

Bestalde *Historia de las Naciones Bascas*-en, euskaldunei zuzentzean (bestaldekoentzat frantseseratzen omen zebilen), jakinezaz semeei asabehizkuntza erakusten ez dietenen jokaera gaitzesten du eta *Perfecciones analíticas*-en, idazle opetsurik ez duela eta, guttiesten dutenen aurka ateratzen. Euskaldunen naziotasuna sendotu nahiean eta Maisuaren *Discursos Filosóficos* argia noiz ikusiko zain zegoen artean, haren “idiologiaren” zabalkundeari ekin zion (hilburukoa betetzeko biderik egokiena eritzita, nonbait), bera ez bait zen euskara kontuetan oso jakituna. *Discursos* eta, batez ere, *Apologiaren* 3. parteari jarraituz (“Antigüedad de la lengua Bascongada anterior á la memoria de las historias, probada por la perfección de la misma lengua”) hizkuntza perfektu eta aberatsen arteko bereizketa egin ondoren, euskararen perfektutasun edo, Oihenart-en hitzez, betegintzarreok erakutsi nahi ditu alfabetoan, hitzen egitura eta analogiazko esanahian, silaba eta hitzen ugaltasunean, atzizki eta deklinabide deitzen ditugunetan, artikuluetan, generorik ezean, 206 aditz-jokoetan, bereziki hitzen ordenan... (79) eta lehendabiziko gizakiek beren premiatarako sortutako hitzen aintzinasunean. Halaber, euskara naturaren hizkuntza omen, eritasun eta hauek sendatzeko landare izenetan, maitetasun eta sendimendu adierazpenetan ere *Apologian* (112. or.) esan bezala oparoa delarik.

Azkenik, herri-kanta eta dantza kontuan berebiziko eragina izan zuen D. Preciso ospetsuak gure bertsolaritzaren historian ere behar luke, Aita L. Akesolok dioenez, bere tokia (80).

LAHETJUZAN (1766-1818) Sarako apaiza, A. D. D'Argain eta Ph. Veyrin-i esker dakigunetik, “La Terreur” garaian jazarria (nahiz eta gero bonapartista sutsu), norbaiti gizon bitxia iruditu arren, ospe oneko omen zen. Idazle izateko sortu ez arren, *Essai de quelques notes sur la langue basque par un vicaire de campagne, sauvage d'origine* liburuxkan (81), Baionan izenik gabe argitaratuan, batez ere euskaldunei zuzentzen zaie atseginez entzun eraziz euskararen ohorezko etorkia, Latour d'Auvergne zeltistarekin lehian (“il es probable qu'elle est... mère de toutes celles qui se disent mères”), eta Astarloagandik ikasitako “Bertcec ezutena, lehen-

(79) “...la locución de la lengua bascongada debe ser diametralmente opuesta à la latina y sus hijas. La diferencia de construcción hace al bascuence de distinta índole que a las demas lenguas de Europa, pero no de las de américa, ni de las del interior del africa que tienen la misma construcción que la bascongada, y es que proceden, todas estas, de un idioma primitivo...” (*Perfecciones analíticas*...).

(80) L. AKESOLO “Bertsolaritza Pernando Amezketarraren garaian”. Egan XXIV, 1969, “Mogelek bere lekua merezi du, Zamakola eta Iztueta'rekin batean, gure bertsolaritza aintzat artu ta ezaguarazi dutenen artean”. Ikus baita R. BASURTO-ren aip. art. ere.

(81) Bavonne, Cluzeau frères, 1808. in-12, 24 or. VINSON, Bibliograph, t. I, 173). Ph. VEYRIN “Un bascophile ignoré” G. H. 1923, 1924. ARGAIN, H. D.: “Recherches sur les mœurs, l'origine et l'idiome des Basques...” G. H., 1929.

bicico linguayaren garbitasuna berequin duela”, egilearen euskarazko idazki bakarrean esan eta aski ongi betetzen dena.

Recherches sur les moeurs, l'origine et la langue des Basques, 78 orr., argitaratzeke utziak (Gure Herria, 1929.ean agertua), aditzera ematen digu, besteak beste, prerromantikoek hain gogoko zituzten herri ohitura eta ahozko tradizioak gurean ere Humboldt, Mogel, Zamakola, Iztueta, Lahetjuzan bezalakoei esker bildu zirela. Ezaguna denez, Lahetjuzan-ek, Humboldten —nahiz ez zuzeneko— mandatuz, Saran Axularrez zenbait istorio bildu zuen 1802.ean.

Bestenaz, alferreko litzateke —eta etimologiak lekuko— erretoraren edo honen ezpaleko eta, agian, zenbait ustetan zordun zaion D'Iharce de Bidassouet-engan hizkuntza nahiz historia aztertzeke metodo zientifiko baten bila ibiltzea.

D'IHARZE de BIDASSOUET-ek (1765-1825) (82), 1825.ean, Parisen, argitara eman zuen *Histoire des Cantabres, ou des premiers colons de toute l'Europe, avec celle des Basques, leurs descendants directs, qui existent encore, et leur langue asiatique-basque traduite, et réduite aux principes de la langue française*. Tome premier. Jules Didot, in-8, 416 or.

Hazparneko apaiza, 1792.ean hegoaldera ihesi etorri eta 10 urtez, jo horra eta hona, berriz sorterrira itzuli baino lehen, ibili zen. Iraultza zale, bonapartista, erregetiar moderatu, ultra eta abarren arteko gatazka politiko eta sozialen artean Arroltzemendiko eremutar xebebreak defentsaliburu ez zientifiko baina bai politiko bat idatzi zuen (honegatik, agian, sortu zuen eztabaida). Bera, dirudienez, aurkakoa izan arren, liburua ultren aldeko zen Errege Carlos X.ari eskainia da, diplomaziaz, herritarren egoera politikoak hala eskaturik, segur aski, Fr. Bartolomek ere horretara ulertu zuela (83). Izan ere, Iraultzak lapurtarren libertateak

(82) J. VINSON *Bibliographie...* t. I, 278. orr. J. DE YRIZAR “Aventures piquantes de M. L'Abbé Diharce de Bidassouet” eta “L'Abbé D. de B.”, biak BSVAP XIV, 1958. Michel ETCHEVERRY “Une adresse au Roi d'un auteur basque”. G. Herria 1938, XVIII. *Histoire des Cantabres* baino aurretik argiratu zuen “prospectua”k, hala ere, beste izenburu bat daroa (*Recherches sur l'origine véritable et réelle des Escu-Alde Duns...*) eta Baionako Apezpikuari eskainia da. Ikus J. de Yrizar-en aip. artik.

(83) “Por toda la obra del Sr. Abate de D'Iharce se ve (sino es cabilación mía) un ayre de afecto, que parece suponer, haber concebido los bascos al republicanismo. Esto se me figura, que se dijo por el Autor, para realzar el valor de los bascongados en defensa de sus derechos” (*Plauto Bascongado*, Carta IV, Santander 30-8-1827. Frantses Kontsulak karmeldarrari bere eritzia berariaz eskatzen dio). “echantillon curieux de littérature auto-louangeuse et discrètement quémandeuse”, M. ETCHEVERRY-ren eritziz, “Epître dédicatoire au Roi”-z ari dela. Egia esan, balakuzko txurikatze hau liburu osoan ageri da, euskaldunek Borbondarrei dieten atxikimendua behin eta berriz aitatzean, adibidez.

galerazi eta zergapetu zituelarik, zergok lur croizpenen arauera izan zitezela eskatzen dio Erregeri (84).

Beste europarrekiko harremanik ezari kaltegarri eritzirik, euskaldunak ezaguarazi nahi ditu: “Pour apprécier un peuple (...) il faut encore connaître ses institutions, ses mœurs, et son langage. C’est par eux que l’on peut juger de son état de civilisation. Les Basques, peu connus jusqu’alors, sont dignes cependant de trouver place dans l’histoire des nations”.

Erakundeak galdu arren, oraino eustaga finkoenak, euskarak, alegia, irauten zuen, nahiz eta guttietsia (85), eta breizera edo breitoieraren zori bera (1825.ean bertan debekatua) izateko arriskuan. Era guztietako harremanak, irakaskuntza, etab. hedatu ahala, frantses hizkuntzarekikoei eta bi hizkuntzak ikasteari onuragarri zeritzon, ikuspegi politiko eta ekonomikotik (86). Gainera, euskara beste hizkuntzekin konparatzeko itxurak egiten baditu, haren berezitasuna azpimarkatzeko dateke. (87).

Bestalde, hizkuntzen ikasketak garaiko denborak iraganekoein konparatzeko balio omen du. Eta iragana egokien deritzon moduan irudikatzen badu, etorkiak baino areago etorkizunak kezkatzen duelako da.

(84) *Histoire...*, 146. orr. (historiako partearen bukaera da) “A la révolution, toutes ces franchises furent perdues pour le pays de Labourt et des contributions lui furent imposées. La stérilité de son sol ne permet pas toujours aux habitants de payer avec exactitude les subsides; mais, sans chercher à demander que les impôts fussent proportionnés à la valeur des produits territoriaux, qui a diminué de plus de moitié; aussi les descendants directs de ces braves Cantabres, qui se mirent sous la protection de Charles VII, comptent-ils sur la bonté et la munificence de Charles X”.

(85) “L’idiome basque regardé jusqu’aujourd’hui comme un jargon, comme un baragouin barbare, sans principes, et irréductible à ceux des langues modernes, est supérieur par son mécanisme verbal à toutes les langues...”.

Lapurtarren eskubide historikoen zapalketa eta euskararen egoera gainditzeko idazten du *Histoire*: “Tracer l’histoire du peuple basque, faire connaître le génie de sa langue, tel est le but que je me suis proposé en écrivant cet ouvrage, dont je supplie VOTRE MAJESTE de daigner agréer l’hommage respectueux”.

(86) “Restés jusqu’à présent comme isolés des autres peuples auxquels ils confinent, et comme étrangers à tout ce qui se passait hors de leur territoire, les Basques pourront désormais par la Grammaire et le dictionnaire que je publie, rentrer dans la grande famille des Français dont leur idiome seul sembloit les séparer. Des relations plus fréquents et plus intimes s’établiront, et cette vaste contrée prendra un essor nouveau. Des ports s’ouvriront au commerce; des ponts, des routes seront construits; l’active industrie viendra répandre l’aisance dans nos villes; enfin l’agriculture, les arts fleuriront dans la patrie de Sertorius et d’Henri IV...” (Preface) Gramatika eta Hiztegi elebidunak euskaldunek berek eskatu omen dizkiote frantsesa ikasteko.

(87) “L’idiome basque n’a aucune similitude avec les langues anciennes et modernes, ni par sa structure, ni par son mécanisme, ni par ses principes. Il n’offre pas le moindre rapport ni indique pas la moindre relation qui puisse faire soupçonner qu’il a tiré des autres langues, tandis qu’au contraire les autres langues attestent par le nombre infini de mots basques...” 281. orr.

Dagoeneko, soma daiteke D'Iharze Sanadon eta Zamakolaren bide-tik abiatu dela Euskal Herria osorik aintzat hartzean, historia idatzi beharraz mintzatean eta iraganeko herri-gobernukera eta historia laudorioz betetzean (88). Are gehiago, Bizkaiko geografiaz diharduela, Zamakolaren esku hartzea nabaritzen du F. Bartolomek (89).

Izan ere, probintzia guztien geografiazko deskribapena dator liburuan eta "Description Géographique de la Cantabrie actuelle" horretan Lapurdiko lur, klima, izakera, josteta eta abarrez zerzeladak eskaintzen ditu paisaiaren deskribapen erromantikoak eta bimoduaren kritika ere tarteatuz.

Hizkuntzaren arloan Astarloari darraio, euskara hizkuntza naturala (ez gizakien lanari esker aberastua), eta hizkuntza baten perfektutasunetik, ondorioz, aintzinekoa dela aterez.

Asia ("asieraco erria", Erroren ondorik, Iztuetak ere, dioenez) alde-tik Uholde ondoren etorriaren, aurretikoa omen ("pourquoi ne seroit il pas la langue crée avec Adam?" 28. orr.). Europako zaharrena, beraz, erbestetar zenbaitek, Court de Gebelin-ek adibidez, onartu bezala.

Hala ere, D'Iharzeren ahoberotasuna eta bitxikeriak alde bat utzirik, egoki litzateke baliagarri diren alderdiak (lapurterazko aditza eta beste) norbaitek azter litzan.

Badirudi D'Iharze, herriaren instruziorako (haurren irakurmen, eta moral edo erlijio arloan), beti irudimen eta jolasbidez eta bi hizkuntzak erabiliaz, beste idazlan batzu ere prestatu zituela, are neurtitzez, agian bigarren tomorako (90).

Nolanahi ere, D'Iharzeren ondorik datozen Lecluse eta Darrigol-ek, adibidez, lan finkoagoa egin zuten hizkuntzaren alorrean.

(88) Euskaldunek beren historia idatzi ezean, daudenak errakuntzez beterik omen. *Histoire*-k ere mito politikoen bildumari (erromatarrengandiko independentzia eta ituna, kantabrismoa, monoteismoa...) frantziar iraultza arte betidanik iraun izan duen (hegoaldean oraino irauten duelarik) herrigobernukera errepublikar, federal edo konfederal, demokratikoa —nahiz eta patriarkala— erasten dio. Euskal nazioaren ezaubideak (hizkuntza, oinarritzko legeak eta noblezia, ohiturak, usadioak, independentzia, libertatea) den guttienik ere aldatu gabe gorde izan direlarik, nazio hori bat eta bera dela (32. orr.) erakusten omen dute. Eta, beraz, Euskal Herri osoa sartzten da *Histoire*-en.

Hizkuntzak ("la charte et le code d'un peuple", 240. or.; conf. *H.^a de las Nac. Bascas*, Amigos del Libro Vasco, t. II, 133. or.) honetarako balio du, hots, "a comparer les moeurs des temps reculés, que l'histoire nous transmet avec celles du siècle ou nous vivons".

(89) *Plauto Bascongado*, 1828 (Fr. Bartolome-k frantses kontsulari) "...alguno de aquellos miserables pedantes fue el que sugirió al Sr. Abate de Iharce la ridicula Geografia de la Bizcaya", 120. or., "para que sonasen en la posteridad... su Indusi... su Zamacola..." 119. or.

(90) *Histoire*, Préface. Cf. VINSON Bibliogr., t. I, 173. D'Iharce, "chef d'Institution libre".

Hegoaldera itzuliaz, karlistada aurretxoan, 1828. urtean Fr. BARTOLOME de SANTA TERESA-k (1768-1835) idatzitako lau gutun Juan Jose Mogelek argitara eman zituen *Plauto Bascongado (...)* y *la impugnación del Manual de la Lengua Basca impreso en Bayona de Francia año 1826 por Mr. Lecluse...* liburuan (125 or. in-8), non hizkuntza kontuak aparte, Iztuetaren *Dantzac* eta Zamakola eta D'Iharze de Bidassouet-en errepublika eta liberalzaletasunaren aurka ari bait da. Lecluse eta Iztuetaren —Iturriaga ere tarteko ote?— erantzunek polemika biziagotu zuten, noski. Fr. Bartolome, ez da, inola ere, lege barriko elizgizon eta, hortaz, erlijio, Errege nahiz jaunei zor zaien menpekotasunaren ikuspegitik begiratzeko duela, Espainiako Euskal-herriak mugaz haraindikoak baino jasagoak iruditzen zaizkio (91).

J. I. de IZTUETA-k (1767-1845).eko *Guipuzcoaco Dantzac*-en hitzaurerian adierazi bezala, “zorioneco gizon lendabizico etara bide zuzenetic igotzea” du asmo, dantza agerikoak moralitasunaren eta aintzinakoen bertuteen erakusle izan bait daitezke, Jovellanos eta Zamakola “jakintsunac” diotenez (92).

(91) *Plauto Bascongado*, 122. or. “El pais bascongado español ha sido tan celoso y magnánimo en conservar sus usos y fidelidad á sus Señores, como enemigo irreconciliable del Republicanismo. Siempre se ha gobernado por sus usos, y por sus superiores. Y no hay egemplo en la historia de que el pais bascongado peninsular se haya insurreccionado contra sus Señores”. Cfr. Erro, *El mundo primitivo*, 1815, 285-286. or.

Bestalde, aitonsemetasunarekin zerikusia duen beste arlo batetan ere ez dator bat: “Hablando el Sr. Abate de la laboriosidad, industria... del pais bascongado, sin hacer distinción de sus provincias, dice, que ejercen oficios, ó artes, que á veces pueden humillar á los que las ejercitan; pero, que esto no mengua su nobleza, ó no se reputa por indecoroso entre los naturales bascos (...) Debió considerar, que los bascongados españoles, bizcaynos, guipuzcoanos, y navarros, ni en su pais, ni fuera de él ejercen oficios, ni artes humillantes, ó bajos (...) pagan á los extrangeros franceses, italianos... el trabajo de tales oficios bajos, ó humillantes...” 121. orr. Fr. Bartolome-entzatzat “Erri zorijoneco oneec badira chito Entzute andicuaq, bai Europa, ta bai ezaututen dan mundu zabalian eureen Jaquituri-jaan, Legue guintzaan, Asmo barrijeetan, Alcar zaintzaan, Guerra-guintzaan, Sendotasunian, Iraunzalian, Odol noblian, ta Verbaco izatian; Oraindino arguijago, icusgarrijago, ta entzunago dira, Ceruco Sinistute zuzenian...” (*Jaungoicoaren amar aguindubeetaco telengo bosteen Icasiquizunac*, 1816, III. or.).

Eztabaida ideologiko hark gaurkotasanik ez du galdu. Cfr. Aita Akesolo-ren (O. C. M.) “Fr. B. de S. T. y su Plauto Bascongado”. B. R. S. V. A. P., 1968.

(92) “En medio siglo a esta parte ha dado una vuelta redonda el carácter guipuzcoano, y desde este mismo tiempo han ido caminando a pasos agigantados a su decadencia y olvido nuestras antiguas danzas y diversiones” (Aprobación de D. Jose Ramon de Elorza, *Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangariak*. La Gran Enciclopedia Vasca, 1968). Lehen ediz.: *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira, edo historia, beren soñu zar edo versoaquin Baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioa...* Donostia, I. R. Baroja, 1824, in-8, 165 or.

Iztuetaren lekukotasunaz bada, zorionez, lan bikainik (93), eta beste gabe, euskal lege eta hizkuntzaren arteko loturaz zaldibiarrek idatziarekin amaituko dut:

“Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; baina Euscara bici bada, Fueroac piztuko dira” (94).

(93) L. MITXELENA *Iztueta, testigo político de su época*. Euskal Herria 1789-1850. *Actes du Colloque Internat. Etudes Basques*, 1973 du J. GARMENDIA *Obras inéditas de Iztueta*, Bilbao 1968, *Iztueta'ren Olerkiak*, Kardaberaz, 1978. J. ELÓSEGI *Juan Ignacio de Iztueta Echeberria (1767-1845)*, S. Sebastián, 1969, eta beste. *Actes du Colloque International. Etudes Basques*, 1973. J. GARMENDIA...

(94) *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* liburuaren, hitzaurrean. Donostia. I. R. BAROJA, 1847.

EL BORRACHO BURLADO: TRANSIZIOKO KOMEDIA BAT

Donostia, 1985-XII-20

Jon Juaristi

Hasi baino lehen, eskertu nahi nioke Euskaltzaindiari zuen aurrean hitz egiteko egin didan gonbidapena. Ni bezala, filologia hispanikoaren alorretik datorren norbaitentzat, ohore haundi bat eta, batera, egoera hestu bat da, zeren sartu behar bait dut nirea ez den arazo batean. Barka itzazue, beraz, nire euskara paubre hau eta nire dorpezia.

Karlos IIgn erregea hiltzen denean, 1700eko udazken ilun batean, Espainia guztiak gorpu bat dirudi: soroak eremuak bihurturik, baserriak hutsik, hiriak hondagarri... Koroaren altxorra agorturik dago; pentsamendua ito egiten da ortodoxia astun baten pean; eta literaturari dagokionez, zer esan daiteke kulteranismoaren epigonoeek doilortzen eta degradatzen duten literatura honetaz? Entzun dezagun zer dioen egungo kritikalarri batek, Russell P. Sebold-ek, azken barrokoaren poesiari buruz:

“¡Esto ni Dios lo entiende! De haber seguido evolucionando así el idioma español, hoy en día dos españoles serían incapaces de entenderse aún al darse los buenos días, pues semejante saludo sería imposible sin alusiones a Apolo, Febo, Esculapio, Delos, el carro del día, etc. Tuvo que haber una reforma.” (1)

Erreforma hori Borbondarrekin iritsi zen. Gizarteak bere ahulezi hilkorra gainditu zuen, flakotasunetik indar berriak atereaz. Karlos Hirugarrenaren garaia, historigile baten hitzetan, “un período de expansión y de relativa prosperidad” (2) izan zen. Gobernu onak eta bakeak nekazal ekonomiari osasuna ekarri zion; merkatalgoa berpiztu zen; administrazioa eta ohitura sozialak garbitu eta hobekitu ziren. Kultur alorrean, gutiengo ilustratu bat zen, European egosten zenaz arduratua, baina, halaber, bere heredentzia propioari so egiten zion gutiengo aristokratiko

(1) RUSSELL P. SEBOLD, *Descubrimiento y fronteras del neoclasicismo español*, Madrid: Fundación Juan March / Cátedra, 1985, 39gn. orr.

(2) GONZALO ANES, *El Antiguo Régimen: Los Borbones*. Madrid: Alfaguara / Alianza Universidad, 1975, 361-362 gn. orr.

bat, zentzu kritiko zorrotz batez horniturik, iraganaren legatuan elementurik balioetsuenak deskubritzen eta berreskuratzen jakin zuena. Espainiako Ilustrazioa ez zen mimetismo baten emaitza izan. Sebold-ek dioenez, beharrezkoa dugu neoklasizismoaren kontzeptua berriro planteatzea, “klasizismo nazional berri” baten zentzuan. Zeren mugimendu honen sustraiak Errenazimendu hispanikoan bait daude, eta eredu nazional batzuetan: Garcilaso, Erromantzeroa, Lirika tradizionala, etab (3).

Neoklasikoek, beraz, ez zuten baztertu Urregorritzko Mendearen Literatura guztia. Aitzitik, heredentzia hori galbaheztu ondoren, garai haietako bihi onenak berenganatu zituzten, eta, ikusiko dugunez, Peñafloidako Kondea ez da jarrera honetako ejemplu txar bat. Hala eta guztiz ere, hain haundia da azken barrokoaren dekadentzia eta Ilustrazioaren Argiak aldentzen dituen kontrastea, bion arteko etena eta apurketa azpimarratzera makurtzen ohi bait gara. Ulergarria izanik ere, jarrera honek, behin baino gehiago, ondorio erratu batzuetara garamatza.

Honelako zerbait gertatu zaio, nire eritziz, euskal kritikalaririk onenetako bati, nire adiskide on eta miretua den Jesús María Lasagabaster irakasleari, Peñafloidari buruzko artikulu batean (4). Azaldu nahi dut idazlan hau, Lasagabasterrek egiten duen guztia bezala, mirezgarria dela eta ideia eta datu sujerentez beterik dagoela. Bestela, ez nuke kontuan hartuko. Nire aldiz, eta espero dut Lasagabasterrek barkatuko nauela, aitzakitza hartuko dut Peñafloidaren teatroari buruzko hipotesi berri bat plazaratzeko, Lasagabasterren eritzien kontrako hipotesi bat, hain zuzen. Eztabaidatik sor daiteke argia; konformismoak, berriz, ilunbetan uzten gaitu. Nik gomitatuko nuke Lasagabaster adiskidea, eta, noski, zuek guztiok, nire hipotesi hau eztabaidatzera, euskal teatroa hobeki konprenitzeko zerbait erants dezakeelako esperoan.

Hona hemen aipatutako artikuluaren lerroalde batzuk:

Bi autore baizik ez dezakegu aipa, hamazortzigarren mendean zehar, euskal teatroaren sorrerako oinarri kronologikoak antolatzen dituztenak, hain zuzen, Pedro Ignacio de Barrutia eta Xabier María de Munibe, Peñafloidako Kondea, beren arteko harremanik gabe dudarik ez, testuen azpitik dagoen prezeptiba dramatikoa kontutan hartzen badugu, oso tradizio desberdinak bait dira bakoitzaren lanak finkatzen dituztenak.

Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizunari* bagagozkio, Barrutiarena baldin bada, jakina, gaurko ikerketen egoerak berea dela onartzera makurtzen bagaitu ere, bere tradizioak, tradizioren bati atxikitzekotan,

(3) RUSSELL P. SEBOLD, *Op. cit.*, 55-56gn. orr.

(4) JESÚS MARÍA LASAGABASTER: “Peñafloida eta Euskal Teatroa”, *Antzerti*, 10, 1985, 2-4 gn. orr.

bere garaiko prezeptiba neoklasikoa baino areago, Erdi Aroko konbentzio dramatikoak gogoratzen dizkigu (5).

Lerroalde hauetan, izaera historiografikozko aurreritzi bat nabari zaio Lasagabasterri. XVIIIgn. mendean ikertu duten beste askok bezalaxe, enfasi berezi bat jartzen du neoklasizismoaren espezifikoa, eta, alde honetan ekitean, ihes egiten dio —inkontzientki, nire ustez— neoklasizismoak berak barrokoz duena. Ondorioa agerian dago: Barrutiaren teatroak ez duela zerikusirik Peñafloredarenarekin, tradizio urruti batean kokatzen delako, Erdi Aroko tradizioan.

Lasagabaster beste tradizio hurbilago batez ahantzi egiten da: tradizio barrokoaz. Kontutan hartu balu, oso diferentea izango litzateke ondorioa. Lehenbizi, ez dut uste Barrutia zegokion korrante edo eskola dramatikoa aurkitzeko Erdi Aroarte atzeratu behar dugunik: ene eritziz, Lope de Vegarekin sortzen den gabon-teatro barrokoari atxikitu beharko genioke (gogora ditzagun Loperen teatro-lan batzuk: *Auto del Ave Maria*, *Nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo*, eta, batez ere, *Los Pastores de Belén*). Jarraitzaile asko izan zuen Lopek, hala Penintsulan nola Amerikako kolonietan. Ia etengabeki agertzen ohi zaizkigu korrante honen obra ezezagunak: aurtan, adibidez, ikertzaile leondar batek, Manuel García Antak, El Bierzoko herrixka batean, Santibáñez del Toral-en, berak aurkitutako *Auto de Navidad* delako bat argitara eman du (6). *Auto* hau XVIIgn. mendeko azken urteetakoa da, idazle anonimo baten lana. Onuragarria izango litzateke, nire ustez, *Gabonetako Ikuskizuna* barroko berant-korraren obra hauekin konparatzea, Juan del Encina edo Gil Vicente bezalako autoreengana joatearen ordez.

Baina, beste alde batetik, ez dago, benetan, harreman batere Peñafloreda eta Barrutiaren teatro-lanen artean? Denok gogoratuko duzue Gabriel Aresti zenaren teoria hura, *Gabonetako Ikuskizunako* Barregilea Peñafloredari *Gabon-Sariak* osatzean lagundu zion bertsolaria izan zitekeelako hipotesi ia detektibesko hura (7). Ez noa orain puntu hau ukitzera: ez deritzat garrantzitsua pertsonai honen existentzia historikoari, literatur harreman bat frogatzekotan, behintzat. Baina aintzakotzat hartu beharko genuke Jon Kortazarrek, duela urte pare bat, egin zuen sujerentzi bat: "... funtsean —dio Kortazarrek— representazioko une berezi batean, bere emaztearekin gaizki eramaten zen eta publikoak ezagutzen zuen pertsona bat aipatu zezakeen pertsona bera da..." (8) Honek Arestirena

(5) *Ibid.*, 2gn. off.

(6) MANUEL GARCÍA ANTA: *Auto de Navidad. Obra anónima del siglo XVII*. León: Lancia, 1985.

(7) GABRIEL ARESTI (ed.) *Teatro Zaarra*, s. I., Auspoa Liburutegia, 1965, 12-13 orr.

(8) PEDRO IGNACIO DE BARRUTIA: *Gabonetako Ikuskizuna. Argitalpen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. Argitalpen Saila, 1983, 146 gn. orr.

baino haruntzago doan beste hipotesi bat proposatzeko bidea zabaltzen digu.

Ezin daiteke uka *Gabonetako Ikuskizunako* episodio batek (261gn. eta 286gn. lerroen artekoak) eta *El Borracho Burladoko* IIgn. eta IIIgn. agertaldiek antzekotasun harrigarri bat aurkezten dutenik. Bietan kontatzen zaigu senar mozkortu baten eta haren emaztearen arteko errierta bat. Barrutiaren lanean, gainera, emazteak senarra kolpatzen du. Bi motibo hauek aurki daitezke Europako teatro txaribarikoaren forma ezagun guztietan (9). Ba dakigu gainera, Hérèlle-ren estudioen bitartez, Zuberoako fartsa txaribarikoek beste jenerozko teatro-lanak kutsa edo kontamina ditzaketela: (10) Adibidez, fartsa txaribariko bat, *Ardeatina eta Ludovina, Alexandre* pastoralean txertatu da; beste bat, *Planta eta Eleanora, Phantzar* ihauteriko komediaren zati bat bihurtu da ere. Zilegi bekit suposatzea, analogia bati jarraikiz, Peñafiorida eta Barrutia jostirudi edo entremes txaribariko batez balia zitezkeela, aipatutako agertaldiak osatzekotan. Ba dakit zaila dela Hego Euskal Herrian teatro txaribariko bat existitu zela frogatzea. Zaila bai, baina ez ezina. Jesús Antonio Cid irakasleak, balada eta ipuin batzuren estudio konparatibo baten bidez, frogatu du Hego Euskal Herrian fartsa txaribariko bat behintzat ezagutzen zela, *Hildebrand Zaharraren fartsa*, hain zuzen. (Cid-en lana *Anuario del Seminario de Filología "Julio de Urquijo"* delakoaren hurrengo zenbakian agertuko da). Hego Euskal Herriko ahozko tradizioaren azterketa sakon batek tradizio teatral galduei buruzko datu berri gehiago ekarriko lituzke, dudarik gabe.

Baina orain arte esandako guztiak ez du azaltzen zergatik deitu diodan *El Borracho Burladori* "transizioko komedia". Planteatu nahi nukena zera da: Peñafioridaren komedia honetan hiru tradizio desberdinen arteko tensioa nabari dela, nahiz haietako batek, neoklasikoak, besteei bere forma eta oreka propioak inposatu. Hala ere, *El Borracho Burladok* aurkezten du, mamiaren mailan, munduaren ikusmen arkaiko bat (barrokotik heredatua). Formaren mailan, berriz, prezeptiba edo arau neoklasikoekiko urruntze edo aldentze bat nabarmentzen da, forma modernoago baten bila doan estilo bat.

Agerian dago komedia hau teatro neoklasikoaren oinarrizko hastapenari atxikitzen zaiola: didaktismoari, noski. Guillermo Carnerok seinalatu duenez, didaktismo hau bi premisen gainean sostengätzen da: lehena, ikuslearen psikologiaren ideia oso primitibo bat (Hiru Unitateen araua sorterazi zuena, hain zuzen). Bigarrena, Aintzinako Errejimenaren ideo-

(9) NATALIE Z. DAVIS: *Les cultures du peuple*. Paris: Aubier Montaigne, 210-1979, 210-250 gn. orr.

(10) G. HÉRELLE: *Etudes sur le Théâtre Basque. Le Théâtre Comique*. Paris: Honoré Champion, 1925, 156-159 gn. orr.

logia hedatzeko eta mitifikatzeko asmoa". Itxuraz, bi premisa hauek betetzen ditu Peñafloredaren komediak: egileak deklaritzen du, hitzaurrean, Hiru Unitateen araua gordetzeko prest dagoela. Beste alde batetik, markesaren pertsonaiak Txanton Garrote hordia zuzentzeko eta eskarmentatzeko funtzioa betetzen du, despotismo ilustratuaren ideologiak eskatzen duenez. Aristokraziak ohituren garbitasuna begiratu eta zaindu behar du, berari bait dagokio Poliziaren funtzioa, herri guztiaren onera-koan. "Dena herriarentzat, baina herriarekin kontatu gabe".

Hala ere, ezin daiteke esan *El Borracho Burlado* Hiru Unitateen aplikazio oso ortodoxoa denik. Egilea bera, hitzaurrean aitzaki eta desen-kusa batzu ematera beharturik bide dago. Ikus dezagun, adibidez, zer dioen Lekuzko Unitateaz:

...pues si bien es verdad que desde la Tienda del Zapatero pasa la Scena a los dos quartos del Marques, suponiendose que el Zapatero vivia en los quartos bajos de este Cavallero, no se debe reputar por mutacion del Lugar.

Azalpen honen bidez, Peñafloreda kritika posible baten aurkako ezku-tu edo babes bat lortzen saiatzen da. Baina honelako azalpen bat pre-miazkoa baldin bazaio, hori da aipatutako araua hain fidelki gorderik ez dagoelako. Egia esan, Peñafloredaren garaian, honelako azalpenak ugaltzen dira, baina ez neoklasikoen artean, jenero berri baten testuinguruan baizik: Komedia Sentimentala edo Komedia Burjesaren testuinguruan, hain zuzen.

Frantzian, jenero honek bere konsagrazioa erdiesten du Diderot-on bi komediekin: *Le Fils Naturel* (1757) eta *Le Père de Famille* (1758). Espainian, Komedia Sentimentalaren ordezkari nagusia Jovellanos dugu, bere *El delincuente honrado* komediarekin (1774). Guillermo Carnerok dioenez, Jovellanos eta Peñafloredaren joera dramatikoak ez dira hain desberdinak. Hona hemen nola tratatzen duen asturianoak Lekuzko Unitatea bere aipaturiko komedian:

Dijimos antes que la Comedia Sentimental respeta las Unidades neoclásicas. Esas Unidades tenían un sentido estricto o teórico, y uno amplio, que es el que Jovellanos emplea. En cuanto al lugar, toda la acción ocurre en el Alcázar de Segovia, aunque en tres lugares distintos (...) Para mantener la Unidad de Lugar es preciso suponer que en el Alcázar están las dependencias judiciales, la prisión y la residencia del Gobernador y la de su hija y su yerno. Jovellanos desliza algunas observaciones que lo demuestran (12).

(11) GUILLERMO CARNERO: *La cara oscura del siglo de las luces*. Madrid: Juan March / Cátedra, 1983, 19 gn. orr.

(12) *Ibid.*, 57-58 gn. orr.

Formari dagokionez, beraz, *El Borracho Burlado* hurbiltzen zaio Diderot-ek eta Jovellanos-ek lantzen zuten Komedia Burjesari. Mamiaren arazoa ez da hain argi, Peñafloreak berak oharpen engainagarri bat sartzen bait du hitzaurrean, dudarik gabe, kritikalariki nahasteko asmoz:

Se muy bien que hay una Comedia (o no se si Opera Comica) en Frances de una idea muy parecida a la de esta; pero protexto que ni la he visto, ni la he leydo; y lo que mas es, no se con certeza su titulo, mucho menos su autor.

Ba dakizue nola kezkatzen duten Peñafloreak Kritikalarien eritzi posibletan, eta nola kezka hau nabarmentzen den hitzaurrean zehar. Ba dirudi Kondeak, oharpen honekin, adarra jo nahi ziela, irtenbide gabeko kale batean sar zitezten. Beharbada, *El Borracho Burladori* beste opera komiko bat erantsi nahi zion, *Los Críticos Burlados* titulutzat har zezakeen opera bat. Kondearen oharra engainagarria da, zeren egiazko iturria estaltzen eta ezkututzen bait du. Iturri hori, E.A.Poe-ren ipuineko eskutitz ohostua bezala, bistan zegoen, mundu guztiarentzako ageri.

Tirso de Molinaren nobelarik famatuena bait da, *Los tres maridos burlados* titulua daramana, *Los Cigarrales de Toledo* nobela-sortako bosgarren eta azkena. Argudioa, hitz gutitan, ondokoa da: Madrilgo hiru andre ezkondu konde batengana doaz, berak, Paris-en judizio berri batean bezala, hiruren arteko bati eraztun bat eman diezaion. Kondeak, orduan, proba bat proposatzen die: hirurak beren senarrez burla daitezela. Burlarik zorrotzenaren egiteak eraztuna hartuko du saritzat. Andre bat, senar jeloskor batekin ezkondua, parada honetaz baliatuko da senarraren akatsa zuzentzeko, komentu baten priorea den bere anaia baten laguntzarekin. Senarrak afarian edaten duen arnoan narkotiko bat isurtzen du. Jeloskorra lokarturik erortzen delarik, komentura daramate. Han ilea moztuko diote eta habito bat jantziko ere. Gizona esnatu ondoren, fraileek komunitatearen kide bat dela sinestarazten diote, eta, hilabete batean zehar penitentzi gogor asko inposatzen ere. Prioreak haren jelsiaz damaturik dagoela ikusten duelarik, lotarazten eta etxerazten du berriro.

Tirsoren jeloskorrak eta Txanton Garrotek beste ezaugarri komun bat dute. Jeloskorra ere arnozale bat dugu, ondoko perpausetan nabarienez:

Diéronle después de cenar, y la bebida fue de vino, que no lo había probado desde el día primero de su transformación, penitencia más áspera para él que todas las demás.

Egitura narratiboa, bi kasuetan, berdina da: bere senarraren akats bat higuintzen duen andre bat pertsona boteretsu batengana doa, laguntza-eren eske, bere gizona bide zuzenera eramateko. Senarra, lokarturik, emaz-

tearen aliatuaren etxera eramaten dute. Esnatzean, nortasun berri bat ematen zaio. Gero, penitentzi bati meneratzen diote. Penitentzi honetan barauak oso paper garrantzitsu bat jokatzen du. Damutu ondoren, bere etxera itzultzen uzten zaio.

Bere iturriaren bitartez, *El Borracho Burlado* Barrokoaren kosmobioiari lotzen zaio: errealtatea eta itxurapenaren arteko aldakuntza etengabeari, nortasunen iraupegabetasunari, teatrotasunari. Zentzu honetan *La vida es sueño* delakoarekin zerikusi gehiago du, Moratinen komediekin baino. Eta Quevedoren *Los Sueños* gogoratzen digu ere: azken honetan gertatzen den bezala, Txanton Garroteren aldaketa Infernuetarainoko beheraldi bat da, *katabasis* bat. Don Diegoren jauregian, Txantonek Infernu klasikoaren tormentu ezagunenetako bat jasaten du: Tantaloren tormentua. Alde honetan, Aintzinako Errejimenaren ideologia argiro erakusten zaigu: Pertsona bakoitzari leku bakar bat dagokio gizartean, bere *locus naturalis*, estatu bat, estamentu bat. Handik ihes egitea zoratasuna dateke. Zoratasun sublime bat Quijote-aren kasuan, kriminala Segismundorenean. Baina beti, bere leku berezitik alde egiten duena itzalen erresuman erortzera kondenaturik dago. Honela, paradójikoki, Markesaren bizimoldea ez da parabisu bat Txantonentzat, infernua bera baizik.

Beraz, *El Borracho Burladok* hiru tradizio, hiru garai batera biltzen du: erroak Barrokoan baditu, etorkizunaren drama burjeserantz abiatzen da, orainaldi neoklasikoan zehar. Bere egilearen izaera isladatzen du, honela izan bait zen Xabier Munibekoa: Ilustratu bat, bere garaiko desfioei erantzuteko gai, progresoaren zalea, baina, aldi berean, tradizioaren defendatzaile sutsu bat.

Esan dut.

GABON SARIAK (Berrirakurketa oharrak)

Donostia, 1985-XII-20

Juan San Martin

Gaurko hau Peñaflorida kondearen *Gavon-sariac* deritzan hotsaldien berrirakurketatik jaso ditudan oharrak baizik ez dira, lehengoaren jarraipenez. (1)

Denok dakigu nolako zalantzak sortu zituen liburuxka horrek egiletzaren jabegoa zela eta. Jose Manterolarentzat ez zen inolako dudarik *Gavon-sariac* lanaren egiletzaz, 1883an esan zuenez “obra indudablemente del mismo insigne Conde de Peñaflorida” (2). Gaur egun inork ez du zalantzarik “Sor Luisa de la Misericordia” izenordez bere burua gordezten zuena Xabier Maria de Munibe, Peñaflorida kondea zela, J. Inazio Telletxea Idigoras eta A. Lino Akesoloren ikerketak erakutsi zigutenaren ondoren.

1762an argitaratu zen *Gavon-sariac*, hein batean birreztu nezake gure ilustrazioaren sarrerako obratzat. Ordurako norbaitzuk antzerkitzat joa zuten. Agertu ere hala agertu zen laugarren edizioz *Teatro zaarra* zeri-

(1) Lehen irakurketa oharrak 1974ko Abenduaren 27an eman nituen Azkoitiko Insaus-ti jauregian, Peñaflorida kondea jaio zen etxe berean eta **Euskera** agerkarian argitaratu, XX, 1975, 453-58 orr. Geroago *Literaturaren inguruan* (1980) deritzan liburuan birargitaratua, 57-67 orr.

(2) *Euskal-Erria* aldizkaria, VIII. tomoa, 306 orr. Jose Manterolak birargitaratzeko asmoz bildua zuena bera hil geroztik agertu zen. Bigarren argitalpena bost zatitan eman zen “Curiosidades bascongadas” zeritzan sailean, eta horren xehetasunetan hutsunea du J. Bilbaok *Eusko Bibliografia* obran, V. tomoko 450 orrialdean (*Misericordia* izenez dator eta geroztik *Suplemento* 1961-1975, X. tomoa osatzen duenean, Munibe Idiaquez-en biltzen ditu *Gavon-sariac* lanari buruzko ikerketak, baina obra horri fitxa berri bat Muniberen izenean idekitzea ere komeni zen), *Euskal-Erria-n* zatika izan zuen bigarren argitalpenaren xehetasun batzu falta dira, baina ez da harritzekoa, zeren aldizkari beraren aurkibidean ere azken zatiaren hutsunea nabari baita. Beraz, osagarriz bihoa honako argitasun hau: *Euskal-Erria* 1889, XX. tomoan, bigarren argitalpenari hitzaurrea 54-6 orr.; lehen argitalpenaren hitzaurrea 73-5; hotsaldien testua bera 112-15, 140-41, 170-76 eta 200-01 orrialdeetan. Hirugarren argitalpena *Egan* aldizkarian 1956. urteko 5-6 zenbakiaren 31-44. orrialdeetan.

tzan bilduman (3). Baina, nik, literatura jeneroz eritzi hertsia ematea baino nahiago nuen egilearen esanari jarraituz "Otsaldia" eta agerraldia deitu, izatez antzirudi kantatura mugatzeko obra denez, Gabriel Aresti zenak besterik uste bazuen ere.

Patri Urkizuk oso ondo egin du, *Euskal Antzertia* lanean (4), Peñaflo-rida kondeak Sor Luisa izenez eman zuena, Joseba A. Lakarraren eritzia-ri jaramon eginez, bilantziko gisako jeneroan sartzea (5). Egia esan, 1974ko Abenduaren 23an Donostiako *Hoja del Lunes* asterkarian "Gabon kantak Literatura zaharrean" zeritzan artikuluan eman nuen lehenik "Villancico jenerotzat, gero *Gogoz* liburuan birretsia (6). Han adierazten nituen kanta zatiak hiritarregandik sortuak zirenez. Besteak beste, han zetorren *Gavon-sariac* deritzanetik hartutako bertso bat ere, zortziko txikian egina, Berri Onaren eredugarri:

*Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naigabeak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.*

"Villancico" (= hiritar) bezala hartzekoak dira 1755ean Bilbon Fr. Mar- tin Oarabeitiak eginak eta 1691an Donostian Nikolas Zubiak argitaratuak, baina horiek ez ezik baita ere Ziburuko Joanes Etxeberrik 1630ean eman zuen *Noelac* ere, neurri handi batean behintzat. Testamentu Berrian mugatzen direlarik, berez dakarte artzaintza munduko giroa, baina hirita- rrak eginak dira. Eta, Peñaflo-rida kondea, Testamentu Berriaz ez ezik XVIII. mendean Ilustrazio mugimenduak herrien anaitasunez ekarri zituen ideaz ere baliatzen da. Honen adibidetxo bat baizik ez da ordurarte Europan sineskaitz zen anaitasunaren alde agertzea, beste zenbait eritzi- ren artean honako hau esanaz:

*Portugesaz laztanga
Gaztelaubarekiñ*

(3) *Teatro zaarra*. Auspoa Liburutegia, 1965. Pedro Ig. Barrutiaren *Gabonetako ikuski- zuna* eta Peñaflo-rida kondearen *El borracho burlado*-rekin batean zetorren, oraindik Sor Luisa de la Misericordia-ri egiletza leporatuz.

(4) Patri Urkizu, *Euskal Antzertia*, 1984. Ikus obra honi buruz *Egan* aldizkarian, 1985eko 3-4 zenbakiaren 198. orrialdean eman nuen aburua.

(5) J.A. Lakarra, "XVIII. mendeko zenbait bilantziko berri", *Anuario del Seminario de Filologia Vasca "Julio de Urquijo"* XVI, 1982, 72. orr.

(6) *Gogoz*, 1978, 37-42 orr. Joseba A. Lakarrak hura ezagutu balu, ohartuko zen *Egan*-en "XVIII. mendeko Gabon kantak euskal literaturan", 1977. urteko 1-6 zenb., 102-06 orr., non oinarritzen nintzen.

GAVON-SARIAC

E D O

AURTENGO GAVONETAN,
Azcoytico Eleiza Nagusian Cantatuco
diran Gavon-Cantaac edo
Otsaldiac.

*Puer natus est nobis,
Venite adoremus.*



AZCOYTIN

Misericordian MDCCLX

Joan Silvestre

Baina, gai hauetan azken boladan izan diren aurkikuntzak kontutan harturik, oraindik ez dagokigu bilduma *exhaustivo* horietakorik egitea eta orain aurkezten dudan saiotoxa adibide izan bedi. Hala ere, zalantzarik gabe bilantziko jeneroan ezartzekoa da *Gavon-sariac* delako lana.

Jenero hortako adibiderik garbiena, eta era berean politena, baita ere Gabon kanta hiritartuaren lekukotasunik argienetakoa, Azkueri Elgoibar-ko Altzolatik Mariano Iriondok igorri ziona dateke (7), non olagizon eta arotz aginaldo eskean agertzen diren:

*Ai au gabaren preziosoa!
Jesus jaio da Belenen.
Etxe onetan sartu ote dan
bila gabiltza beronen.*

*Erdiok gara olagizonak
beste erdiok arotzak;
limosnatxo bat egitekotzat
bigundu bediz biotzak.*

Joan zen mendearen azkenaldera galdu ziren Elgoibarren ola-zaharrak eta kanta horren sustraiak haruntzago aurkitu beharrezkoak ditugunez, ez litzaiguke batere harrigarri idurituko XVIII. mendetik datorkigun herri kanta izatea.

Peñaflorida kondearen *Gavon-sariac* bilantziko jenerotzat hartuz, hirirarrak egiteaz gainera ilustrazio mugimenduaren ideetakotzat finkatu behar dugu. Obraren bukaerako “Kopla jostalluak” direlako bertsoetan aurkituko bai ditugu Peñaflorida kondeak bere ekintza pertsonalez ondoko urtetan bete eta betearaziko zituen ideiak.

Bi menderen atzerapenez Europara begira jarri garenok ez dugu ahaztu behar Xabier Maria Munibe Frantzian ikasketak egina izatez aparte Enziklopediaren zale zela eta bazuela herbesteetan harremanik garai haretako aurrerapenen berri jakiteko. Ikuspegi horretatik sortu ziren Euskalerriko Adiskideen Elkarte eta Bergarako Mintegia, era berean ideia horiekin Espainia guzira begira zabalkundea lagunduz. Besteak beste, Jovellanos-en Egunkaria dugu horren lekukorik egokienetakoa, hainbat Real Sociedad Economica sortzeaz gainera.

Aurten, heriotzaren bigarren mendeurrena delata eratu diren hitzaldietan eman da argibiderik aski. Ez dut hortaz ezer gehitu beharrik. Baina bai iragan larunbatean (hil honen 14an) Guido Brunner Alemanian Federaleko Enbajadore jaunak gogorazi ziguna, Gilen von Humboldt-en

(7) R. M. de Azkue, *Cancionero popular vasco*, urte gabe, 915. kanta, 1.072. orr. Handik jasoia ikus *Gogoz*-en 32 orr.

idazkiak gure herriagan ematen zuen europar maila. Izan ere, hala behar geografiaz Pirineoaren bi hegaletara zabalduz Frantzia eta Espainia gaindi aurkitzen den Euskal Herrian.

Hori horrela delarik, Jesusen Berri Ona, Bibliako zenbait pasartez baliatuz, aspaldi baztertu samar zeuden ideiak berrituz eta batez ere ilustradu gisa berrikuntzen mezua zekarren Peñafiorida kondeak. Bere *Gavon-sariac*, ordurarte ezagutzen ziren Gabon kanta baino maila goragoak dira jakituriz. Ideak ez ezik bertsoak ere halakoak ditu. Duela zortzi urte hala agertu nuen: Bere obra jakitunago batena zela, ordurarte ezagutzen ziren Gabon kanteekin konparatuz. Bestalde, segidilla eta aria politik zituela, baina bertako koplak ez txarragoak. Egileak hitzaurrean agertzen zuenez, Martin Beltz izeneko batek lagundu zion bere bertso-gintza hortan (8). Baina, nor zen Martin Beltz? Sor Luisa bezala Munibe berak asmatutako pertsonaia ote zen “agure bertsolaria”? Hor gelditzen zaigu zalantza (9).

Bilantzikoak, hiritarrak kantatuarren, maizenik gortesanoak egokituak izaten ziren, eta ba dirudi Peñafiorida kondearen amets-irudimeneko fikzio zela Martin Beltz. Aitzakia horrekin egileak bere burua gordez. Baina, obrak Sor Luisa egiletzat bazuen burua gorde beharrik bai ote? Zalantzan jartzekoa da. Horregatik, ez dugu ziurtasunez bermatzerik. Argitzen ez den artean, nolabaiteko laguntza izan ziteken ustea geldituko zaigu eta pentsatzekoa da Segidilla, Aria eta Kopla handiak hobeak direnez, era berean *El Borracho burlado*-ko bertsogintzaren gaintetik daudenak, ez dugu lotsarik izan behar duda hori aitortzean. Naiz eta bigarren irakurketa honek Peñafiorida kondearengana gehiago hurbildu eta edozein autorek bere obra barruan holako gora-beherak izan, hor gelditzen zaigu zalantzatxo hori.

Munibe, idea berrien mezulari agertzean ordea, hor bai ez dugula inolazko dudarik. Arestian aipatu bezala, hirugarren hotsaldiko “Kopla jostalluak” ditugu ideia horien lekukorik hoberenak. Hor bai daude geroago gure “zalduntxoak” aurrera emango zituzten ekintza eder haien ideiak. Horregatik kokatzen dut *Gavon-sariac* bilantzikotzat eta Ilustrazioaren sarreran. Ez ordea Neoklasiko estiloaren mailan, zeren bere egitura eta irudien erabilera forma zaharragoak bait dira, *El borracho burlado*-rena bezala. Euskal literaturan Neoklasiko egitura, izen honek duen zentzuan, beranduxeago hasiko zen. J.A. Mogelen *Peru Abarka* eta Paskual Iturriagaren alegiekin.

(8) *Bidez*, 1981, bilduma liburuaren 35-40. orr. Puntu honetan argi gelditu bedi Martin Beltzen laguntza egileak berak aipatzen duela, eta Otsalarrek hura jaso baizik ez zuela egin. Beraz, inoiz ez zuen horri eusteko edo hori ukatzeko asmorik, J.A. Lakarrak aipatutako lanaren 73. orrialdean dioen bezala (*Anuario del S.F.V. “Julio de Urquijo”, XVI, 1982*).

(9) *Euskera*, XX, 1975, 455 orr. Eta *Literaturaren inguruan*, 1980, 61 orr.

Bukatzeko, hara hemen Berri Onaren arabera, gure ilustratuaren azken agurra:

*Auxen bai dala egiaz
Denbora urrezkoa,
Ta ez len koplari zarrak (19)
Erausitakoa;
Orain aien amesak
Egia sorturik,
Ekusten ari gera
Pozez zoraturik.*

*Baña kanta berri au
Geitxo luzatu da,
Nere eztarri tristea
Ia urratu da;
Naiago det ixildu
Kataratu baño;
Agur, nere jendeak,
Urrengo urteraño.*

(10) “Koplari zarrak” dioenean profetak adierazi nahi du.

FRANZISKO XABIER MARIA MUNIBE ETA IDIAKEZ PEÑAFLORIDAKO IX. KONDEAREN GENEALOGIAZ

Donostia, 1985-XII-20

Jose Antonio Arana Martija

Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkartearen kide naizen aldetik, eta erakunde honen sortzailearen heriotzaren bigarren mendeurrena ospatzen dugularik, Euskaltzaindiak egun honetan antolatu duen omenaldian Euskaltzain Urgazle gisa parte hartzea dagotik. Gai bat aztertzea eskatu zidan Aita Villasantek eta Munibetarren Aikoa ateratzea iruditu zitzaidan, Juan Karlos Guerraren Artxiboan azaltzen diren datuak taiutuz. Egia esan, Guerraren eskuizkribuen artean, badago familia honen leinua ematen duen aikoa, metro bat luzeran eta hirurogei zentimetro zabaleran daukan paper handi batetan idatzia. Baina gaur gomutaratzen dugun pertsonaiak bazeuzkan Munibetik zetxekion etxaguntzatik aparte beste batzu ere (1) eta jabego hauetatik aparte PeñafloRIDAKO KONDE titulua, jatorriz Muniberen haritik ez zetorkiona.

Sarri askotan, PeñafloRIDAKO KONDEA aipatzen dugunean, Erret Elkartearen sortzailea datorkigu gogora. Baina titulu hau erabili dutenak gehiago izan dira, hamalau gutienez, eta erreskada horretan zein den gure omenduari dagokion tokia zalantzan jartzen da. Leandro Silvan jaunak, esate baterako, VIII. KONDEA izan zela diosku eta eritxi berekoak dira idazlerik gehienak (2). Guerrak, ostera, bere aikoa, eta Juan Jose Mugartegik IX.a zela diote. Badago, beraz, puntu honetan zalantza. Errakuntzaren arrazoia honetan datza ene ustez: izen berdina zeramaten aita-

(1) Julián Martínez Ruiz: *Los mayorazgos del Conde fundador*. BR SBAP, 1969, I, 119-164 orr.

(2) Leandro Silván: *La vida y la obra del Conde de PeñafloRIDA*. San Sebastián, 1971, 9 orr. Juan Vidal-Abarca: *Historia Genealógica de los Condes de PeñafloRIDA*. BR SBAP, 1985, 3-4 koadernoak, 543-755 orr. 1986.eko Uztailaren 12an eskuratu nuen Boletinarene ale hau eta Vidal-Abarca jaunaren lana irakurtzeko aukera berandu heldu zitzaidan. Nere "Euskera"-rako lantxo hau 1985.eko Abenduan idatzi nuen eta Euskaltzaindiaren bilera egunetan Ameriketara nengoenez, Aita Villasantek irakurri zuen. Vidal-Abarcaren lana oso ona eta ondo dokumentatua delakoan nago.

semEEK, Franzisko Xabier Munibe eta Idiakez, eta aitari zegokion VIII. titulua eta IX. semeari. Baina astitsuago azter dezagun arazo hau.

Muniberen jatorria eta Peñafloidako kondeen haria 1669. eko Urtarrilaren 7an bateratu zituen Martin-Manuel Munibe eta Aranzibiai. Aita-gandik zetorkion, jakina, Munibe familiakoa izatea; baina Peñafloidako titulua Jordana-Manuela Aranzibia-Sasiola eta Eginu amarengandik zetorkion. Bi bide hauen xehetasunak emango ditut hurrengo lerroetan.

I. MUNIBETARRAK

Juan Karlos Guerrak utzi zigun aikoa hartzen dut hemen emango ditudan azalpenen ardatz gisa, beste iturri batzuetatik datu zehatz pila bat gehituz.

I.1. **Santxo Martinez Munibe**, N. Basabe andrearekin ezkondu zen eta ezkontza honetatik jaio zen:

I.2. **Juan Munibe Basabe**. 1552an Maria Ortiz Otaolea andrearekin ezkondu zen. Andra hau Lope Ibañez Otaolea eta Maria Ortiz Larrabetzua ezkontzatik sortua zen.

I.3. **Juan Munibe Otaolea**, 1595an Jordana-Manuel Aranzibia-Sasiola eta Eginu andrearekin ezkonduak, Markina-Etxebarriko Jauregia eraiki zuen 1610-1612 urteetan eta 1619an hil zen. Bost neba-arreba izan zituen: Pedro, Migel, Lope, Hernando eta Maria Munibe Otaolea, Pedro Lopez Oronzua jaunarekin ezkondu zena. Jordana-Manuel emaztearen bidez txertatu zen Munibe familian Peñafloidako kondeen leinua, titulu honi dagokion erreskadan ikusiko dugunez. Eta horrez gainera, andra hau izan zen, senarra hil ondoren, 1619an Munibetarren etxaguntza sortu zuena, Markinako Pedro Urrusolo eskribauaren agirian finkatuz.

I.4. **Martin-Manuel Munibe eta Aranzibia-Sasiola**, Santiagoko Zalduna, Zezilia Axpe eta Zarate andrearekin ezkondu zen 1620an. Amaren bidez lortu zuen honek 1669.eko Urtarrilaren 7an Peñafloidako Konde titulua, erreskadan IV. izanik. Bost neba-arreba izan zituen honek ere: Juan, Maria, Azkoitian monja izan zena, Pedro, Antonia eta Sebastian. Denetatik famatuena Pedro Munibe Aranzibia-Sasiola izan zen. Markinan 1603.eko Urriaren 29an jaioa, Gaztelako Erret Kontseilukoa izan zen.

I.5. **Juan-Franzisko Munibe eta Axpe**, Calatravako Zalduna, Isabel Ugarte eta Hurtado-Zaldibar andrearekin ezkondu zen 1649.eko Uztailaren 31an. Gonzalo Ibañez Ugarte eta Ana Maria Hurtado-Zaldibaren alaba zen emaztea. Juan Franzisko, Peñafloidako V. Kondea izan zen, eta hamaika neba-arreba izan zituen: Teresa, Martin, Lope-Antonio, Alcantarako Zalduna, Maria Leonor Garabitorekin ezkondua, Jordana-Maria,

Martin Oronzua Barroeta jaunarekin ezkondua, Kristobal Barroeta, Calatravako Zaldunaren gurasoak, Ana Maria, Juan G. Axpe eta Munibe jaunarekin ezkondua, Pedro, Inazio, Gertrudis, Jose Ubillarekin 1661an ezkondua, Antonia, Zezilia eta beste Pedro bat. Denetatik famatuena Inazio Munibe eta Axpe izan zen, San Bartolome Ikastetxeko ikasle nagusia, Markinako Karmengo Komentua sortu zuena eta 1666an Ziortzako Abade izatera iritsi zena.

1.6. Franzisko-Antonio Munibe eta Ugarte, Peñafloidako VI. Kondea, Ana-Luisa Idiakenez eta Egia andrearekin ezkondu zen 1668an. Franzisko Idiakenez eta Manrique de Isasi eta Luisa Egia eta Irarraga senar-emazteen alaba zen lehen emazte hau, bigarrenez ere ezkondu bait zen Franzisko-Antonio Dionisia Jauregi eta Salazar andrearekin. Bost nebarreba izan zituen: Martin, Calatravako Zalduna, Guda Kontseiluko Dekanoa eta Valdeliriosko I. Markesa, Andres, Valdeliriosko II. Markesa, Franzisko, Teresa Tello Espinosa andrearekin ezkondua eta Valdeliriosko III. Markesa, Ana, Diego Messia eta Torres jaunarekin ezkondua eta Sierrabellako III. Kondea, eta azkenez, Juan, sasi-semea.

1.7. Martin Munibe Idiakenez, Peñafloidako VII. Kondea, ezkongabe hil zen 1708an, Munibetarren etxaguntza eta Konde titulua anai honi emanaz,

1.8. Franzisko-Xabier Munibe Idiakenez, Peñafloidako VIII. Kondea, 1709an Maria-Inazia Idiakenez eta Insausti andrearekin ezkondu zena. Emazte hau Antonio Idiakenez Egia eta Luisa-Maria Insausti Ibarra senar-emazteen alaba zen. 1746ko udazkenean hil zen Kondea eta emaztea, gure omenduaren gurasoak, 1749.eko Otsailaren 21ean. Sei izan ziren azken aipatu bi Konde hauen neba-arrebak: Maria-Josefa, Jose-Fernando Moyua eta Ubilla, Rocaverdeko Markesarekin ezkondua, Maria-Rosa, Iñigo Ortes de Velasco-rekin ezkondua, Manuel, Franziska, Antonia, Diego Izagirre jaunarekin ezkondua eta Teresa, Felix Sanchez Samaniego jaunarekin ezkondua. Aurrean aipatutakoak dira ba gaur ospatzen dugunaren guraso eta osaba-izekoak.

1.9. Franzisko - Xabier - Maria - Jose - Joakin - Felipe -Felix -Jazinto - Inazio Munibe Idiakenez Idiakenez Insausti. Azkoitian jaio zen 1729.eko Urriaren 23an eta Bergaran hil 1785.eko Urtarrilaren 13an. Josefa Areizaga eta Irusta andrearekin ezkondu zen Oñatin 1747.eko Ekainaren 3an. Emaztearen gurasoak Jose Areizaga Corral, Areizagako Baroia, eta Maria-Josefa Irusta Agirre izan ziren (3). Arreba bakar bat izan zuen gure Kondeak, Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiakenez, Jose-Antonio Sanchez Samaniego jaunarekin ezkondua eta Samaniego alegilariaren amo-

(3) Justo Gárate: *Ramón Munibe en la Viena de la Ilustración. 1772-1773*. Boletín de Estudios Germánicos de la Universidad Nacional de Cuyo, 1969, 56 orr. Ignacio Zumalde: *El matrimonio del Conde de Peñafloida*. BRSBAP, 1969, I, 255-271 orr.

I.13. **Jabier Mendizabal Argaiz.** Luisa Argaiz Muniberen semea zen, Peñafloidako XIII. Kondea izatera iritsiz. Arreba nagusi bi izan zituen, Josefa, ezkongabea, eta Maria, N. Piñeyro jaunarekin ezkondua. Beraz, Bitor Munibe Aranguren ez zuenez ondorengorik izan, loba bakararren eskuetara joan zen titulua.

I.14. **Joakin Mendizabal Gortazar.** Jabier Mendizabal Argaiz jaunaren semea, Amalia Matxinbarrenarekin ezkondu zen eta 1910ean lortu zuen aitarengandik Peñafloidako XIV. Konde titulua.

Ikusi dugunez, Munibe deitura eta etxaguntza Jose-Maria Munibe Aranguren eta bere anaia izan zen Bitorrekin galdu ziren. Bitor Munibe Aranguren izan zen 1857an Coello-rentzat Bizkaiko mapa eta hirien planoak osatu zituen.

II. PEÑAFLORIDAKO LEINUA

Jornada-Manuel Aranzibia-Sasiola eta Eginio izan zen, ikusi dugunez, Martin Manuel semearentzat 1669an Peñafloidako titulua lortu zuena. Baina, nondik zetorkion titulu hori?

Spainako Felipe IV. Erregeak, Antonio Eginio Zubiaurre jaunak egindako mesedeak ordaintzeko, 1631.eko Abenduaren 21ean, Peñafloidako Konde titulua sortu zuen. Baina zaldun hau 1632an hil zenez, bere arreba bakarrari eman zion titulua. Baina goazen gorago Eginotarren leinuan.

Antonio Eginio eta Jordana Aresti, azkoitiarrek, bi seme alaba izan zituzten: Antonio Eginio Aresti eta Maria Eginio Aresti. Etxeko seme nagusia, Isasaga dorrekoa, Kataliana Zubiaurre Sarabia andrearekin ezkondu zen 1574.eko Maiatzaren 14an, eta semealaba bi izan zituen: lehen aipatutako Antonio eta Luisa Maria Eginio Zubiaurre. Peñafloidako titulua eskuratu orduko hil zen Antonio Eginio Zubiaurre eta 1633.eko Martxoaren 30ean, arrebari eman zion titulua Erregeak nebaren mese-deak goraiapatuz. Beraz,

II.1. **Luisa-Maria Eginio Zubiaurre** izan zen Peñafloidako I. Kondea, edo titulua erabili zuen lehena, neba titulua eskuratu orduko hil bait zen.

II.2. **Sebastian Aranzibia-Sasiola Eginio.** Luisa-Maria Eginio Zubiaurre ondorengorik gabe hil zen. Beraz, tronkala balitz bezala, lehen aipatutako Maria Eginio Aresti izekoarengana joan zen titulua. Maria Eginio Aresti andrea ezkondua zen Martin-Otxoa Aranzibia Sasiola jaunarekin, 1561.eko Urtarrilaren 20an. Ezkontza honetatik jaioa zen Sebastian Aranzibia-Sasiola Eginio, amaren bidetik titulua lortu zuena, Peñafloidako II. Kon-

dea izatera iritsiz. Beste alaba bat ere bazeukaten honen gurasoek, hots, Jordana-Manuela Aranzibia-Sasiola Eginu, Juan Munibe Otaolea jaunarekin 1595ean ezkondua. Martin-Otxoa aita alargundu zenean, berriz ezkondu zen 1584.eko Martxoaren 1.ean Magdalena Otaolarekin. Eta honen aizpa batekin ezkondu zen Sebastian, Martin-Otxoaren semea: Katalina Otaolea andrearekin, hain zuzen.

II.3. Bernardino Aranzibia Otaola. Sebastian Aranzibia-Sasiola Eginu eta Katalina Otaola senar-emazteen semea zen eta aitarengandik eskuratu zuen titulua, Peñafloidako III. Kondea izanik.

II.4. Martin-Manuel Munibe eta Aranzibia-Sasiola. Ondorengorik gabe hil zen Bernardino Aranzibia Otaola, eta aitaren kasuan Eginotarrengandik lortu zuten titulua, lengusinarekin titulua eskuratu, orain ere Bernardino izekoa zen Jordana-Manuelaren bidetik, haren lengusu baten gana joan zen titulua, andra horren semearengana, Munibetarren familia-ra luzarorako joanez. Martin-Manuel Munibe izan zen ba Peñafloidako IV. Kondea. Hurrengo Kondeen erreskada emana dugu.

III. SAMANIEGOTARRAK

Franzisko-Xabier-Maria Munibe eta Idiaketz, Peñafloidako IX. Kondeak arreba bakar bat izan zuen: Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiaketz. Andra hau Jose-Antonio Sanchez-Samaniego jaunarekin ezkondu zen. Ezkontza honetatik Felix-Inazio eta Franzisko-Xabier Sanchez-Samaniego jaio ziren. Lehen, Anzuolako Juana-Maria-Teresa Zabala eta Arteaga andrearekin ezkondu zen 1737.eko Urrian eta ezkontza honetatik jaio zen, bostgarren semea zelarik, Felix-Maria-Serafin Sanchez-Samaniego Zabala Munibe Arteaga alegilaria. Bederatzi izan ziren Ana-Maria-Teresa Munibe eta Idiaketzaren ilobak:

1. Maria-Josefa	1738
2. Antonio-Eusebio, S.J.	1739-1790
3. Juana-Maria	1740
4. Maria-Lorenza	1742
5. Felix-Maria-Serafin	1745.10.14-1801
6. Isabel	1747
7. Santiago	1749
8. Franzisko-Xabier	1752
9. Franziska-Xabiera	1753

Aipa dezagun amaitzeko Teresa Munibe Idiaketz, gure Kondearen izekoa, honen arreba baino lehen Felix Sanchez-Samaniego jaunarekin ezkondua zela. Beraz, gure Kondeak osaba eta koinatuak izan zituen Samaniegotarrak.